

Poetaren ustetan, gizakiok amets egiteko sortuak gara; baina, bizitzeko organu egokien faltan, finean, hegan egin nahi luketen arrainak baino ez gara. Hegan egin nahi genukeen arrainak... Hala ere, nork jakin, agian liburuak eskaintzen digu hegaldatzeko organu ezinbesteko hori: Umberto Eco-ren esanetan, diren eta ez diren asmakizunen artean, liburua dugu osoena eta orotarikoena, sua edo gupila gertatu ziren bezala. Alabaina, beharbada guk geuk aingurak ipintzen dizkiogu geure buruari. Edo harresiak. Edo lakioak. Edota kaiolak, Gasteizko Unamuno institutuko graffitigileak zirriboratu bezala:

*Buruan txoriak dauzkadala diozue,
baina zuen kaiolak baino nahiago ditut nik.*

Zer pentsa eta zer sentitua ematen duten hitzak dira. Nire sentitzen ditudanak. Durduzagarriak zaizkidanak. Edonola ere, ziur nago, aurten, Urruzuno lehiaketa kuttun honetan irabazle suertatu zaretenok, elefanteak ez, baina zaldiak sentitu dituzuela. Ziur nago, halaber, bakarren batek elefanteen neurriko hutsunea —edo zama— nabaritu duela bere ilusioa zapuzturik ikustean, baina gogoan izan sarritan arkakusoen antzeko aldea egoten dela lan irabazlearen eta galtzailearen artean. Eta epaimahaiko lagunontzat ez dela batere erraza bat nabarmentzea. Edonola ere, denoi ala denoi ere elefante gutxi, eta zaldi eta inurri asko opa dizkizuet. Edo ez. Agian nire desioa zehaztu beharrean nago: bizi, bizi zuen elefanteak, zuen zaldiak eta inurriak, guztiak; bizi, gozatu, nozitu, eta hegaldatu letretan eta eleetan. Eta kontaguzue gero.

Patxi Zubizarreta



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-3599-2



2021eko Urruzuno literatur lehiaketako irudiaren egilea: Alots Arregi Izagirre

2021eko Urruzuno literatur lehiaketako lan irabazleen bilduma



sagastiberri



2021

literatur lehiaketa

URRUZUNO

URRUZUNO

literatur lehiaketa

2021

POESIA A

Ekaitz Martín Pérez
Uxue Pérez Mugika
Ander Villacián Crespo
Irati Eizaguirre Otegui
Nahia Urteaga López

POESIA B

Maddi Agirre Epelde
Leyre Rivera Cuevas
Maddi Guraya
Izaro Sánchez Azcarate
Irati Oskoz Egiguren

PROSA A

Maider Eraunzetamurgil Elustondo
Onintze Arrastia Mauleón
Txomin Valverde Costa
Xuban Senar Usandizaga
Maider Zugasti Rodríguez

PROSA B

June Aiestaran Iparragirre
Nahia Iturbe Orbegozo
Unax Muniozguren Alonso
Oihana Fernández de Larrinoa Ibarbia
Naia Urtaran Bilbao

irakaskuntza ertainetako

Urruzuno

literatur lehiaketa 2021

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke: https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclp?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia: 1.a, 2021eko uztaila

Ale-kopurua: 1.700 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza Saila

Internet: www.euskadi.eus

Prestatzaileak: Itxaso Hierro, Ibon Olaziregi eta Maitane Izagirre

Azaleko ilustrazioa: Alots Arregi

Azalaren diseinua: Oihana Pagola

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa eta inprimategia: Printek, S.A.L.

ISBN: 978-84-457-3599-2

Lege-gordailua: LG G 405-2021

AURKIBIDEA

Sarrera		7
Hitzaurrea: Elefante eleak poeta gazte bati idatziak	<i>Patxi Zubizarreta</i>	11
Poesia: A maila		19
Boterearen dantza amaigabea ...	<i>Ekaitz Martín Pérez</i>	21
Loredien maitalea	<i>Uxue Pérez Mugika</i>	27
Ez-lekuak	<i>Ander Villacián Crespo</i>	33
Hego doinua	<i>Irati Eizaguirre Otegui</i>	39
Ohe zurian	<i>Nahia Urteaga López</i>	45
Poesia: B maila		51
Portzelanazko panpina	<i>Maddi Agirre Epelde</i>	53
Nire bizitzako mamuek zure izena daukate	<i>Leyre Rivera Cuevas</i>	59
Korrika bizian amildegirutzen den urpekaria	<i>Maddi Guraya</i>	65
Jakin-mina	<i>Izaro Sánchez Azcarate</i>	71
Aukeratzten ez diren bidaiak ...	<i>Irati Oskoz Egiguren</i>	77

Prosa: A maila		83
Eppur si muove	<i>Maider Eraunzetamurgil Elustondo</i> ..	85
Izarrak zeruan	<i>Onintze Arrastia Mauleón</i>	97
240 segundo	<i>Txomin Valverde Costa</i>	111
Hesitik haratago	<i>Xuban Senar Usandizaga</i>	121
Gutun klandestinoa	<i>Maider Zugasti Rodríguez</i>	133
Prosa: B maila		141
Mendekuen fabrika	<i>June Aiestaran Iparragirre</i>	143
Beirazko esfera	<i>Nahia Iturbe Orbegozo</i>	151
Ilargiaren eskuetan	<i>Unax Muniozguren Alonso</i>	159
Odolkiak ordainetan	<i>Oihana Fdez de Larrinoa Ibarbia</i> ..	171
Heriotza Gorria	<i>Nahia Urtaran Bilbao</i>	181
Urruzunotarrak 1986-2021		187

SARRERA

1986an abiatu zen Urruzuno literatur lehiaketa eta ordutik, urterik huts egin gabe, irakurtzeko eta idazteko zaletasuna duten euskal gazteen topaleku izan da. Hogeita hamasei urte bete dira lehenengo ediziotik, eta askoz gehiago betetzeko asmo sendoarekin jarraitzen dugu, gainera.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte hauetan guztietan urruzunotar izan direnen zerrenda. Bostehunetik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetako lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literaturako izenetan. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraiatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila eta eraginkorra dago gaztetxo idazlearen atzean. Berezko iaioitasuna ez da gehienetan nahikoa izaten

idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu zure barnean daramazuna ikusten. Agian, oraingoan ez duzu asmatu zure hori kanporatzen. Beharbada, trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai, esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da: “saiatu” besterik ez.

Aipa ditzagun aurtengo datuak. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen lankidetzan izan dugu aurtengo epaimahaian:

Gari Berasaluze
Peru Iparragirre
Goiatz Labandibar
Jasone Osoro
Patxi Zubizarreta

Parte-hartzeari dagokionez, 2021. urte honetan 342 lan jaso dira: A mailan, 168 prosan eta 26 poesian; B mailan, berriz, 119 hitz lauz eta 29 olerkian. Parte-hartzaileetako %74,6 neskak izan dira, eta %25,4 mutilak.

Dakizuen bezala, ekimenak dituen 20 bikaintasun-aipamenak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailatan: bosna, atal bakoitzean.

Aipamendunek irailean egingo den bost eguneko literatur egonaldian hartuko dute parte.

Sagastiberri sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratzen dira lanak, eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren bukaeran *urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2021era bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Patxi Zubizarretari.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburua zure ikasleen artean irakurtzeko eta idazteko zaletasuna zabaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburua, gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

“IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU”, deiadarka datorkizu liburua.


Euskara Zerbitzua

Elefante eleak poeta gazte bati idatziak


Patxi Zubizarreta

«Jakingo banu, esango nizuke nor naizen. Batzuetan arkakuso, besteetan elefante. Jakingo banu, esango nizuke zer atsegin dudan gehien: batzuetan irakurri, besteetan idatzi.» Ez dira nire hitzak, baina nire sentitzen ditut. «Jakingo banu, esango nizuke nire izena: gauetan Mari, goizetan Asun.» Bai, Mariasun Landarenak dira nire hitzok.

Eta hitz horiek badute antzik mundua nolabait ere laburbiltzen duen poema batekin, hau ere oso nire: «Penak elefanteak dira, eta bizkarrera igotzen zaizkizu. Pozak zaldiak dira, eta oinei eragiten diete. Amodioa inurriak dira, eta gorputz osora zabaltzen zaizkizu». Bai, Juan Kruz Igerabiderenak dira nire hitzok.



Egia esatera, elefantearen irudia ere oso nire sentitzen dut. Beharbada memoriaren metafora delako, eta gaur egun memoria erabat gutxietsia dagoelako. Edo beharbada Atilak eta enparauek gerrarako piztia indartsu gisa ere erabili zutelako. Edo beharbada, kontrara, zirkoetan animalia mantso gisa erakusten zutelako. Baike, elefanteak ere mundua laburbildu dezake...



Diotenez, India urruneko sei pertsona jakintsuk elefantea nolakoa den jakin nahi izan zuten; baina, itsuak izaki, animalia ukimenaren bitartez ezagutu beharrean gertatu ziren. Hala bada, lehenengo hurbildu zitzaion, eta talka egin zuen ugaztunaren bizkar zabal eta gogorraren kontra; orduan pentsatu zuen: ‘Badakit, horma bat da’; bigarrenak letaginak haztatu zizkion eta, hain zorrotz eta biribilak iruditurik, pentsatu zuen: ‘Badakit, lantza bat da’; hirugarrenak, animaliaaren tronpa bihurria ukitu bezain laster, larriduraz hots egin zuen: ‘Badakit, suge bat da!’; laugarrenak, eskuak elefantearen belaunetan pausatutik, esan zuen: ‘Badakit, zuhaitz bat da’; bosgarrenak belarriak ukitu zizkion, eta esan zuen: ‘Badakit, haizemaile bat da’; seigarrenak isats kulunkaria laztandu, eta esan zuen: ‘Badakit, soka bat da’. Eta nork bere iritzia osatu zuelarik, nor nori moko, elefanteari buruzko eztabaidan hasi ziren.

Halakoxea erretalitatea ere, eta mundua, zeren, funtsean, anitzak eta askotarikoak baitira bizitzari begiratzeko moldeak eta ikuspuntuak. Nondik begiratzen zaien. Askorentzat, bizitzak arrisku izaten jarraitzen du, eta horma, eta harresi; askorentzat, bizitza natura baino gehiago elefantearen koloreko porlana da; baina gatazka ere izan daiteke, edo jolasa, eta abarren abarra. Literaturari dagokionean, horma epopeia izan daiteke, edo ipuina lantza, edo fabula sugea, edo zuhaitza nobela, edo eskutitza haizemailea, edota soka biografia. Baina genero horiek guztiak sarritan bereizezinak izaten dira, bata bestearen barnean agertu ohi zaizkigu, obra berean nahas-mahas. Eta paradoxikoa izan daiteke, baina gertatu ohi da, elefantea aurrez aurre izan arren, begien bistan izanagatik ikusezina gertatzea, kristalezkoa balitz bezala, eta halakoetan haren presentziaz ez jabetzea, harik eta alimaleko animaliarekin talka egiten dugun arte. Literaturan ere anitzak eta askotarikoak baitira bizitzari begiratzeko moldeak eta ikuspuntuak. Zenbat buru, hainbat aburu, hainbat sorburu. Nolako begia, halako egia.

Bitxia da, baina J.K. Rowling-ek hain zuzen ere *The Elephant Housen* idatzi zituen Harry Potter-en istorio-misterioak, Edinburgon. Argia eta gasa ordaintzeko nahikoa dirurik ez, antza, eta seme-alabek eskola amaitutakoan, hara biltzen ziren guztiak, etxeko lanak egiteko eta nobelak idazteko. Rowling pobrea zen orduan eta pakidermorik astunena sentitu bide zen ez hamar ez hamaika, baizik eta hamabi argialetxeren ezezkoa jaso zuenean; baina Erresuma Batuko emakumerik aberatsenetakoa dugu gaur egun, erregina bera baino aberatsagoa. Idazle britaniarrak seguruenik gogoan zuen Rilke poeta gazte bati emandako aholkua: «Kanpoko erantzunen zain egon beharrean,

begiratu zeure barrenera, eta idazteko grina sortzen zaizun hondo-hondoraino» (*Briefe an einen jungen Dichter & Poeta gazte bati idatziak*).

Elefante txori-bihotza liburuan Mariasun Landak aitortu zigun bera, izan, elefante bat dela, eta Mukanda Kikungarekin Parisko zoora joan zenean egin zuela deskubrimendu hori. Adiskide kongotarrak orduan, aitorpenarekin harritu ez, eta erantsi zuen: ‘Bai, elefante emea zara, baina kolo-kolo txoriaren bihotza daukazu’.



Eta bitxia da, baina Rilke ere Mariasun Landaren antzera mintzatu zitzaigun. Poetaren ustetan, gizakiok amets egiteko sortuak gara; baina, bizitzeko organu egokien faltan, finean, hegan egin nahi luketen arrainak baino ez gara. Hegan egin nahi genukeen arrainak... Hala ere, nork jakin, agian liburuak eskaintzen digu hegaldatzeko organu ezinbesteko hori: Umberto Ecoeren esanetan, diren eta ez diren asmakizunen artean, liburua dugu osoena eta orotarikoena, sua edo gurpila gertatu ziren bezala. Alabaina, beharbada

guk geuk aingurak ipintzen dizkiogu geure buruari. Edo harresiak. Edo lakioak. Edota kaiolak, Gasteizko Unamuno institutuko grafittigileak zirriboratu bezala:

*Buruan txoriak dauzkadala diozue,
baina zuen kaiolak baino nahiago ditut nik.*

Zer pentsa eta zer sentitua ematen duten hitzak dira. Nire sentitzen ditudanak. Durduzagarriak zaizkidanak. Edonola ere, ziur nago, aurtan, Urruzuno lehiaketa kuttun honetan irabazle suertatu zaretenok, elefanteak ez, baina zaldiak sentitu dituzuela. Ziur nago, halaber, bakarren batek elefanteen neurriko hutsunea —edo zama— nabaritu duela bere ilusioa zapuzturik ikustean, baina gogoan izan sarritan arkakusoen antzeko aldea egoten dela lan irabazlearen eta galtzailearen artean. Eta epaimahaiko lagunontzat ez dela batere erraza bat nabarmentzea. Edonola ere, denoi ala denoi ere elefante gutxi, eta zaldi eta inurri asko opa dizkizuet. Edo ez. Agian nire desioa zehaztu beharrean nago: bizi, bizi zuen elefanteak, zuen zaldiak eta inurriak, guztiak; bizi, gozatu, nozitu, eta hegaldatu letretan eta eleetan. Eta kontaiguzue gero.

Patxi Zubizarreta, 2021

POESIA A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Boterearen dantza amaigabea

Ekaitz Martín Pérez
Gernika BHI
Gernika-Lumo

Tik-tak, tik-tak, tik-tak...
Denbora aurrera doa...
Tik-tak, tik-tak, tik-tak...

“Botereak ez du hutsunea onartzen, beti betetzen da
zerbaitekin:

Jainkoekin, ideologiekin, istorioekin edota agintariek.
Ez dago tronu hutsik.”

Utz iezadazu neure burua aurkezten.
Hemendik nabilt orain dela mendeetatik,
baina ez dut ez izen, ez goitizen.

Bertan nengoen traditu zutenean Zesarra,
hogeita hiru zenbatu nituen sastadak,
hura bai bere aurpegiaren nekusan ikara.

Bertan nengoen traditu zutenean Salbadorea,
kaletik arrastaka galdu zuen ohorea,
eta gurutzeari entzun zekiokkeen deitorea.

Bertan nengoen Erroma sutan zegoela,
enperadoreak etzanda ikusirik,
umeak erredurekin ihesian zebiltzala.

Nire izena jakin nahi izanez gero,
ez ezazu nigandik askorik espero,
ez galdetu nora noan ezta nondik natorren,
nire erantzuna ez baita izango batere dotore,
adi! Kontatuko dizut gero zer datorren...

Bertan nengoen Europara heldu zenean izurri asiarra,
abadeek predikatzen zuten salbazioa lortu nahian,
herrietan hiltzen zebiltzala, bai gazte eta bai zaharrak.

Bertan nengoen gudara zihoanean herria,
erregeek asmatutako erlijioa jarraituz,
salbatu nahi baitzuten beraien bizia.

Bertan nengoen aurkitu zenean Mundu Berria,
gogoratzen ditut itsasoaren erasoaldiak,
eta behin gabiako zelatariak botatako irrintzia.

Nire izena jakin nahi izanez gero,
ez ezazu nigandik askorik espero,
ez galdetu nora noan ezta nondik natorren,
nire erantzuna ez baita izango batere dotore,
adi! Kontatuko dizut gero zer datorren...

Bertan nengoen hasi zenean hedatzen ezagutza,
eta erregeei izua sartu zitzaientean gorputzean,
ikusi baitzuten bukatzear zegoela herriaren esklabutza.

Bertan nengoen hil zutenean errege frantsesa,
“askatasuna” izan arren beraien lema,
erregearen ostean etorri ziren milaka hileta.

Bertan nengoen langileek lor zezaten duintasuna,
laburragoa izan zedin beraien laneguna,
erreguek behingoz izan zezaten erantzuna.

Nire izena jakin nahi izanez gero,
ez ezazu nigandik askorik espero,
ez galdetu nora noan ezta nondik natorren,
nire erantzuna ez baita izango batere dotore,
adi! Kontatuko dizut gero zer datorren...

Moskutik nenbilen egoera aldatzeko unean,
errege-etxean sartu eta tsarra hartu genuen,
herritarrek bukatu nahi zuten enperadorea.

Tankean igo nintzen blitzkrieg-aren garaian,
milioiak izan ziren hildakoak eta batailak,
urte horietan guztiz belztu zen paisaia.

Gogoratzen dut gertatutakoa Hiroshiman,
hodei artean Heriotza azaldu zen, eta,
istant batean joan ziren ehun mila arima.

Hortik aurrera badakizu zer datorren.
Kubatarren haserrea eta Munduaren ikara,
tirokatutako presidentea eta Ilargirako bidaiak,
“I have a dream...” eta zapalduen matxinada,
harresi baten erorketa eta bloke baten beherakada,
zentral baten leherketa eta heriotza nuklearra,
Interneten sorrera eta distantzia ororen amaia,
bi dorreen eraispena eta mendekuaren indarra,
zomorro asiarraren agerpena; eta zu.

Zu, istorio honen parte;
zu, ziklo honen parte;
zu, beste txotxongilo bat.

Denbora aurrera doa eta zuk ezin asmatu,
istorio honetan erruduna nor den,
urtez urte eta mendez mende,
istorioa errepikatzen da amaigabe,
eta ezin izango duzu zure patua aldatu,
baitzara boterearen dantzaren parte.

Loredien maitalea

Uxue Pérez Mugika
Beasain BHI
Beasain

EZ DA MALKORIK

Hotzen herrian jaio nintzen
itzalen herrian.

Biktima isilduen herrian
negarrik ez den herrian.

Ahul sentitzeagatik
biktima.

Sentitzeagatik
hauskor.

Eta ez, ez gara hauskorrak
gordeak gaude

gotor.

Koadrikulatu
markatu
solido
karratu

Jaio nintzen herri goibel honetan ez da malkorik.
Eta ez banaiz hemendarra?

KATE MOTZEAN

Mugitu zaitezke
agindutakoa besterik ez.

Askatasun desira
puztuz
kateak irmo du jarraitzen.
Bultzada bakoitzeko tente.
Bultzada bakoitzeko
hauskaitz.

Baina hasiko dira kate-begiak herdoiltzen
bultzadak indartzen,
askatasuna helmuga.
Indarra areagotuz

Hautsiko da katea
eta ihes
urrutira ihes
egingo du.
Ezagutuko ditu
erratuko du
biziko du.

Eta sorterriaz oroitzean
lotu zuten kateak sentituko ditu azalean.

KATARSIA

Korapiloa matrailezurrean
arnas estua
arnas gogorra.
Entzun nahi ez den arnasa.
Begiak urtuz
amorrua solido
arnas bortitza.

Eta biriketara ongi iristen ez den airea
eztarrian kateaturik.
Ez gora ez behera.
Eta negarra,
malkoak borborka.

Zu ere korapilatuta
gorputz atal guztiak besarkatu nahian
amorruek eragindako beroak ihes egin ez dezan.

Beroa sentitzeko
nolabait.
Joango da beroa lurrintzen
eta hotzikarak gorputzean zehar zabaltzen
arnasa lasaitzen
arnasa isiltzen
azala leuntzen
airea igarotzen
Baina eztarriko korapiloak bertan dirau,
estu.

Eta hotza.
Itzuliko da hotza.
Bakanduko dira malkoak
eta indartuko asmoak.

LOREDIEN MAITALEA

Hotzen herrian jaio nintzen
itzalen herrian.
Mugitu zaitezke
agindutakoa besterik ez.
Eta eztarriko korapiloak bertan dirau,
estu.
Ihes betea zilegi balitz.

Ez-lekuak

Ander Villacián Crespo
Botikazar BHI
Bilbo

Hiriko zabalgunetara gerturaten naizen bakoitzean
neure buruari itauntzen diot betiko galdera berbera:
hain ezberdinak al gara?

Non dago nire eta euren anatomiaren
arteko aldea?
Nire hazpegietako zeinek oihukatzen du:
NI EZ NAIZ HEMENGOA

Apika nire begiek ez dute haien
urdintasuna antzeratzen
edo irribarreak sortzen du tragedia;
Nik ez ditut ondo lerrokatutako
perlazko hortzak,
erakusleihu batean jar zitekeen
hortzeria.

Ihardespena aldiz, nire konplexuetatik asago,
izen atzerritarreko dendak dituzten kaleetatik at
datzalako susmoa daukat.
Ez naizela ni hirigunean
jasotzen ditudan begiraden
erruduna,
nire barruek baitakite

nolakoa den nire janzkera,
zertan ezberdintzen garen
hemengo eta hangoak.

Gutxitan izaten dut
arrotza izango bainintzan
begiratzen nauten pertsonekin
mintzatzeko paradarik
eta haiek, letania baten parean,
justiziaren eta klase-borrokaren omenez
galdekatu nahiko nituzke:

Zergatik?
Zergatik heure klasismoak pozoitzen du
heure diskurtsoa?
Izan ere, ba al dakik nola heltzen den
gure bizitokira?
Zeuok araokaturiko kaiolara?

Ba al dakik nola konjugatzen diren
aditzak,
geroa ezagutzen ez duen herrialdean?
Sikiera, ohartu al haiz gure auzoek nozitutako
narriaduraz / bazterketaz / etsipenaz?

Txirotasuna aberatsek,
faltsuki izendaturiko lehen munduak
asmaturiko berba bat da.
Guk ez dakigu zer den pobrezia,
bai, ordea hotzegiak diren maindireak,
zaindu ezin diren bizitzak
eta iluntasuna, betiereko iluntasuna.

Hemen inork ez du ezagutzen
Chicagoko eskola, eskasiaren muga
ezartzen duten bizar txuriko tipo trajedunak.
Aitzitik, badakigu nolakoa den
andeaturiko hiriaren begitartea.

Guk geuk zaintzen dugu
gure munduaren puska
eta abandonuaren olatu erraldoiak
sortutako suntsipena,
utzitako lohia,
umeez harea-gazteluak eraikitzeko
erabiltzen zituzten jostailuzko kubotxoekin
xukatzen saiatzen gara.

Artean auzoak bere nortasunari deitso,
baina alferrikakoa da eskuetako ahurretan
ura gordetzea.
Alferrikakoa da gure gerra,
baina pentsamendu hori ekidin ohi dut
nire indarrak ez agortzearren.
Alferrikakoa da seguruenik,
zuek hemengo errealitatea ezagutzen
ez duzuen bitartean,
paisaiaren bihotzak zeharkaturiko taketa
ermamiekin ukitzen ez baduzue.

Bazterketak kinaturiko zauriak larruan geratu baitzaizkigu
zizelkaturik,
eta xakitzen gaituzten ezberdintasun ikusezinek
bizia inarrosi digute.

Askok atzendutako lekua
leku izaten darrai?

Hego doinua

Irati Eizaguirre Otegui

Lizardi BHI

Zarautz

Luma urdin-gorridun,
txori moko-beltza,
berea inguruko,
ibaien jabetza.

Ur-txori, Makinista,
Anil-txori, Martinete,
edo Kulaberde,
Martin arrantzale.

...

Txorrotxio alaia,
kantuan arina,
hori biziz jantzia,
kanarioa anaia.

Arbi-txori, Berderoi,
Txirribirri edo,
baita Txarraskala,
da Txirriskala.

...

Luma beltz, berde, hori,
beti abeslari,
kumetzean lotsati,
neguko hegazti.

Haltz-txoria, Kolika,
eta baita Kolina,
Ddiriña edo Ttorroa,
da gure Tarina.

Basoa bizileku,
eta hazi jatun,
zomorroa amorratu,
pin-pin ohiko kantu.

Artatxori, Neguta,
Pintxan edo Pinpin,
Pintzote, Elur-txori,
edota Pintzana.

...

Mokoa beltz, sendoa,
hegazti zuri beltz,
noizbehinka urdindua,
lau urtarotakoa.

Deitua Pika, Fita,
Pikaraza, Mika,
edo baita Marika,
berdin-berdin Pita.

...

Moko fin zorrotzeko,
“errege ttipia”,
ezkutaturik ozen,
kantuan jarraitzen.

Pettittarrege, Epetx,
Aiñarrepitterra,
Errepetita, Txepetx,
edo Erregetxopit.

Urdin, gorri, zurixka,
hegalari trebe,
lokatz kabi egile,
intsektu jakile.

Azpizuri, Ainara,
Elai, Enabera,
ezaguna Enara,
edota Ainhia.

...

Izatez guztiz beltza,
kolore deigarri,
moko laranja, hori,
hegalari handi.

Martizozo, Tordo,
Zozobeltz, Xoxo,
Zozoar, Zozoeme,
denak dira Zozo.

...

Moko luze, zorrotza,
hegazti marroixka,
ertaina da izatez,
zangoluzea jaiotzez.

Batzuetan Oilitsu,
bestetan Azai,
toki hartan Oiligor,
hemen da Oilagor.

Bularraldea gorri,
jaioa chiztari
zizare zein intsektu,
elikagai iturri.

Txantxango, Papagorri,
Txindor, Antxogorri,
bera da Txantxangorri,
eta Anttonpapargorri.

Ohe zurian

Nahia Urteaga López

Lauro Ikastola

Loiu

Basoko hosto galdua
Haizeak gidatutako ur-tanta
Tximista iheskorra
Hori al naiz ni?
Auskalo.

Astigar zorabiatua
Argi-izpi ahaltsua
Korapilatutako sustraia
Hori al naiz ni?
Nork daki.

Nork daki zer
Nork daki nola, nor, noiz
Ezjakintasun honetan dakidan bakarra
nire hitzen jarioa nirea dela da.
Nire sentimenduen islada.

Hortaz, bidezkoa iruditzen zaidana
nire sentimenduen errotik hitz egitea da.
Nire ametsak itzultzea.
Aurpegi-estalkia kentzea.
Pentsamenduen zentzua puskatzea.
Labur esanda,
ni neu izatea.

Ni neu izatea...
Erreza dirudi,
hitzak askatu
aske idatzi...
Baina ideien mihiseak amildegi itxura dauka.
Dena erortzen da,
dena desagertzen da.
Ez dago ezer zehatzik.
Tatxoiak bakarrik.
Tatxoiak, tatxoiak
eta tatxoi gehiago.

Hala ere, honek ez nau harritzen.
Gure hitzak gure pentsamenduen adierazle dira
eta nireak, nola ez, lausoak dira,
laino arteko itzal goibelak.
Azken urte hauetako beldurraren aztarna galduak.
Horma zuri hauen artean elikatu ditudanak.
Nire bizitza purtzila irudikatzen dutenak.

Hemen, gauza ugari oldozten ditut eta aldi berean,
batere ez.
Gauza batzuk gehiegi hausnartzen ditut eta beste batzuk,
batere ez.
Ez dut goiargirik inon aurkitzen,
ez iluntasunaren distiran ez argitasunaren itzalean.
Batzuetan, neure garunak ez ote duen liburu baten itxura
izango galdetzen diot neure buruari.
Moztutako orriak dituen liburu baten itxura, hain zuzen.
Osatugabea.
Urruneko izarren inguruan dauden zulo beltzen antzera.

Ez dakit zertan pentsatu.
Haurtzaroko urteetan,
urte osasuntsuetan,
urte alaietan...
Iraganeko egunetan.
Zeukan denbora agortu zuen iragan horretan.

Orainaldia da gelditzen zaidan bakarra
baina, noiz arte?
Denbora ez da mugagabea
eta hemen nago ni, galduta.
Ez dakit ezta zer sentitu.

Bat-batean nire odola izoztu egin da
eta begiak urtu.

Bat-batean bere falta somatu dut
“Zerutik begira al dago? Nitaz harro al dago?”
Erantzunik gabeko galderak.
Gelditzen zaidan bakarra harrotasuna da.
Bere izena gogoratzearen harrotasuna
Bere lurringaia usaintzearen harrotasuna
Lau horma hauen artean berriro “Maite zaitut”
oihukatzearen harrotasuna.

Bat-batean nire giharrek adrenalina gaindosi bat jaso dute.
Momentu batez, zorionsua izatea lortu dut.
Buruhausterik gabeko haur hura naiz.
Irribarre egiteari beldurrik ez diona.

Bat-batean lotsa desagertu da.
Bakarrik gelditu naiz.
Nire sentimenduekin jolasean.
Pentsamenduen bidez deabruarekin ituna sinatzen.

Bat-batean hil egin naiz.
Hil egin gara.
Ospitaleko txistua konstantea da.
“Pi” iraunkorra,
ez bizitza bezalakoa.
Hura mugatua da.
Altxor engainakorra da.
Guztien artean laburrena.

POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsuak

Portzelanazko panpina

Maddi Agirre Epelde
Armentia Ikastola
Vitoria-Gasteiz

Lehen txinparta, lehen zantzua,
lehen malkoa, izua.
Gela zuriaren erdian,
lorez jositako umea.
Dena da berdea,
esperantzaren kolorea.
Bada zerbait, bada bizia,
iluntasunean argia?
Mina eta ezina,
nire portzelanazko panpina.

Bigarren txinparta, bigarren zantzua,
bigarren malkoa, izua.
Gela zuriaren erdian,
zuritzen hasi da umea.
Zuri, zuri, geroz eta zuriago.
Ahul dago.
Eta berdea?
Non da esperantzaren kolorea?
Egoera gordina,
nire portzelanazko panpina.

Hirugarren txinparta, hirugarren zantzua,
hirugarren malkoa, izua.
Gela zuriaren erdian,
geldi dago umea.
Bizia eta heriotza,

oraindik taupadaka du bihotza.
Entzuten al duzu
arnasaren hotsa?
Hautsa bezain arina,
nire portzelanazko panpina.

Laugarren txinparta, laugarren zantzua,
laugarren malkoa, izua.
Jendez jositako gela zuriaren erdian,
lo dago umea.
Negarra eta irria,
azkarregi igaro ote da bizia?
Esku zimurtuak hartu du esku leuna,
kontaktu hotza, iluna.
Aditu, gelditu,
segadak soldadu gehiegi ditu.
Zuritasun zikina,
nire portzelanazko panpina.

Azken txinparta, azken zantzua,
azken malkoa, izua.
Gela zuriaren erdian,
ez dago umerik.
Joan da bizia, joan da jendea,
izara zuri batek estali du umea.
Malkoa bihurtu da erreka,
sentimenduak errenka.
Mina eta ezina...
Non dago nire portzelanazko panpina?

**Nire bizitzako mamuek zure izena
daukate**

Leyre Rivera Cuevas
Santa María Ikastetxea-Marianistas
Vitoria-Gasteiz

EKLIPSE

Zurekin ulertu nuen ni eguzkia eta zu ilargia zinela
Gure historia kontatzeko ez zela
Eta zure deabruak oraindik nire atzetik datozela
Begiak ixtean zure aurpegia ikusten dut
Sufrimendua eragin zidan aurpegiak
Zuk bizitza beste modu batean ikusten lagundu zenidan
Eta horrela berriro ikustea nahi ez dudalako
Bakarrik zu nire ondotik joatea nahi dut

ZURE MAMUA

Txoriak kantan
Zugan pentsatzen
Gure abestia entzuten
Zure begiak imajinatzen
Zure usaina nire sudurrean berriro agertzen
Nirekin zaudela oraindik irudikatzen

BEGIEN HIZKUNTZA

Biharamunean elkar ikusiko dugu
Ez pentsa ahaztu zaidala
Itsaslabarrera joango gara
Olatuak harrien kontra ikustera
Zure begiak nire begietan berriro sentitzera

BIZITZARAKO PASAHITZA

Agian bizitza ez da hain konplexua
Eta behar dugun bakarra irribarre egitea da
Segurtasun-gabeziak desagertu arte
Eta momentu horretan benetan zer nolako pertsona garen
ezagutzea

OROITZAPEN APURTUAK

Zure begiak itsasoan ikusten ditut
Zerura begira esperantza berreskuratzeko ahalmena
ikusten dut
Zer egin genuen gaizki ez dut aurkitzen
Zutaz edo nitaz edo nortaz hitz egin
Baina orain ez dut ezta zure itzala ikusten
Zure presentzia sentitzen
Gure argazkia bakarrik geratzen zait
Eta elkarrekin bizi genuena berriro sentitzera eramaten nau
Azkenean bizi genuena ipuin bat zen
Irakaspena ekartzen zuena
Berriro gertatu behar ez zena irakatsi zidana

2 NORTASUN AURPEGI 1

Nik ezagutzen dudan pertsona gogoratzeko
Eta zure benetako nortasuna ez ikusteko
Nirekin izan zinen bezala gogoratzea gustatzen zait
Esaten zenidan guztia
Sentitzen nuen guztia
Gezur bat izan ez zela nire burua konbentzitzeko

ZER DA POESIA?

Zer da poesia?

Pentsatzen gabiltza begietara begiratzen garen bitartean

Asko gustatzen zaizkidan zure begi marroiei begira

Edo faltan botatzen ditudanak nirekin ez zaudenean

Zein urduri jartzen naizen nire begi urdinak gustatzen

zaizkizula esaten didazunean

Hain sakon begiratzea zure arima nirearekin nahasten

dudala

Zure begiak nire begietan

Gure arnasak nahasten uztea

Eta gure bihotz taupadak erritmo berean sentitzea

Hori gertatzen denean konturatzen naiz

Poesia zu zarela

Korrika bizian amildegiratzen den urpekaria

Maddi Guraya
Ander Deuna Ikastola
Sopela

Gure nahiak, beldurrak eta laztanak bideak dira,
txikitan osatutako hareazko gazteluak bezalakoak;
amaigabeak, ilusioz eta ausardiaz beterikoak...
Txikitan denak dira betetzen errazagoak. Bizi dugunerako,
beldur gutxi ditugu, halere; eta ditugun gutxiak
irudimen-bultzadek gaintitzen dizkigute.

Okerreko bidetik bagoaz, aldiz,
edo grabitateak gehiegi erakartzen bagaitu,
olatuek botako dituzte gure aire-gazteluak,
lausotuko dira -logikaren izenean- gure irrikak,
ez dugu izango itsasoaren hegian
dantzan egoteko aukerarik.
Dena “horrela” denean,
inork ez du ipar-orratzen beharrik.

Nortzuk garen eta zertara gatozen jakin gabe,
KORRIKA gara hasiko.
Gelditu gabe, pentsatu gabe,
inertziak gaitu eramango;
KORRIKA gaitu eramango
beti amorratuta,
beti azkar,
bizi garen buruko beharren gela karratu horretaraino.

Han, begiak itxi eta esna ametsetan,
gazteluak, hondartzak eta argia gogoratuz bizi gara;
horretara ohitu gara,
oroitzera, akordatzera, konformatzera...
Eta, bat-batean, buruan eztanda:
“Izan zirelako, ba al gara?”
Ez, esna ametsetan egon arren, libre ez gara;
badatorkigu, orduan, iraganeko zama.

Eta begiak irekitzean,
gu ez gaude askatasun-amildegian,
baizik eta inurriak bezala errotuak lanean,
toki batetik bestera,
goitik hasi eta behera,
aurrekoari jarraituz osatzen dugun katean.
Kilometro antzuak bildumatzen ditugu horrela,
jomuga bidea bera baino gehiago baloratzen denean.

Ertzak borobiltzea izan liteke gakoa,
ziztatzen gaituena ezabatzekoa;
bada, puntu bat dugulako helmuga,
ez dugu osotasuna ikusten.
Plano horretan dudak eta kezkek dira gure ikaskide,
baina galdua eta noraezean daude haiek ere.
Maleta txiki eta pisutsu bat dugu, beraz, bidaide;
iparrak noiz benetako nahia adieraziko duen zaintzaile.

Zoritxarrez, grabitateak ez digu oreka malgutzen utziko,
eta dena hankaz gora jarritz gero,
ez gaitu eutsiko.

Lurrera errotu beharko ditugu pozak,
lau hormen artean gorde beharko dugu
itsasoaren handitasuna,
ur gaziaren kolorea dastatuz,
ahal dugun heinean,
BIZItzen saiatu nahi badugu.

Horrela, libertateak itoko ez bagaitu,
ikas dezagun, itsasgora honetan gaudela,
URPEKARIAK bezala arnasari eusten.
Inperfektuak izanik, ez perfektuak izan nahiez,
jarrai dezagun BIZITZEN,
ez KORRIKA, ez bizirauten,
baizik eta,
ahal den guztietan,
zoriontasunaren hegian murgiltzen.

Jakin-mina

Izaro Sánchez Azcarate
Askatasuna BHI
Burlata

Jakin- mina
Oso maite nuen ostadarra
eskolan esan zidaten arte
zela zeruko hodeien negarra
kolore guzti horien parte.
Horrek egin ninduen suntsitu.
Behar al du ortzia pizteko
bertako laino orok sufritu?
Noiztik poza minaren menpeko?

Azken kamusada ez zen hori
ezagutzaren bidean zehar
lurrera zitzaizkidan erori
makina bat aintzinasmo zahar.
Heldutzea ez da erraza,
baina saia zaitez egunero.
Nornahi da sendotzeko kapaza,
akatsetatik ikasiz gero.

Izutzen nindutenen aurrean
jada ez naiz gehiago kikiltzen,
nire amildegien ertzean
ikasi baitut tente ibiltzen.
Biziki izutzen naute goierek

baina zerua heldu ezean,
hura babesten duten izarek
ez naute nahiko haien artean.

Hortaz hemen zinezko galdera:
zein ote da topatu nahi dugun
zoriontasunaren tankera?
ez omen da inoren ezagun.
Ezagutza honen garrantzia
ahantzi zaigu estimatzea
atzean dugu farra utzia,
erraza oharkabez galtzea.

Ez gaitu inork ohartarazten
gainean datorkigun pisuaz.
Ez ditugu haurrak ganoraz hezten
jarkiko direlako izuaz.
Motxiletan hamaika liburu:
gizarte, ingelesa, historia...
Burua bete itzulinguru,
bartzertuz zaharren memoria.

Artean hemen gaude isilik,
goretsiz helduen adimena,
ta uzten gaitu aho zabalik
txikien zuhurtzi eta kemenak.
Hortaz, aholku bat adiskide:
gezurrak ezingo dira izan
galderak ekiditeko bide
haurrak badira herriko plazan.

Tresnak itzali, fitxak baztertu,
ikasi irakasten, mesedez.
Ez gehiago ametsak puskatu
zintasuna ezartzeko xedez.
Minak egiten bazaitu bere,
mantendu ahoan irrifarra
negar-malko ilunenek ere
sortzen baitute ostadarra.

Aukerak ez diren bidaiak

Irati Oskoz Egiguren
Arantzazuko Ama BHI
Donostia

Aurrera joan nahi dut ondoriorik pairatu gabe.
Bukaeran dagoen amildegitik erori gabe.
Iluntasunak ni jan gabe.
Oraina izan nahi dut galdutako oroimen bihurtu gabe.

Zaila da bukaeraz jabetzea oinez zoazen bitartean.
Badirudi ez dagoela amaierarik
eta aurrera egitearen ideiak zoragarria dirudi.

Bidaia hasi baino lehen amesten hasten zara.
Abesti zoragarri bat imajinatzen zenuen arren,
zure buruaren aurka doazen hotsak entzun ditzakezu
soilik.
Eta bai,
badakit behin baino gehiagotan ondorioei buruz hitz egin
zenidala,
baina ezinezkoa da hona iritsi gabe
hau ulertu ahal izatea.
Biok ongi asko dakigun bezala,
ez dago atzera bueltarik, kasu honetan.

Hau dena errusiar mendi bat izango balitz,
beno, ederki,
zuk ordaindu bidaia,
zuk aukeratu bidaia,
eta gora eta behera, behera eta gora ibili ondoren,
kito!

Abesti eder hori dantzatzen jarraituko zenuke.

Modu batean edo bestean,
lehenago edo beranduago,
pentsamenduen hondartzara iritsi behar nuen.
Hemen, pentsamenduak, nahi izanez gero,
itsasertzean zehar zabaltzen dira,
lasai asko, nik ondo uler ditzadan.

Beste batzuetan,
itsasoa haserretuta dagoenean,
talka egiten dute,
bata bestearen aurka doaz:
batzuk desagerraraziz,
beste batzuk okerreko bidean jarritz,
eta gutxi batzuek lortzen dute bere horretan itsasertzera
iristea.

Hondartza hau ez da inolaz ere zabala, barea edo isila.
Zati txikitxo bat hareaz estalita dago
eta zorionez,
noizbehinka hareazko gaztelu bat egiteko aukera daukat,
urak suntsitu baino lehen.

Olatu erraldoiak daudenean ez dago niretzako lekurik.
Hauek txikitu egiten naute,
ito,
barrua jan, eta
hustuta uzten naute.
Ez daukat aukerarik isiltasunaz
edo pentsamendu ez diren beste hainbat gauzez gozatzeko.

Nik ez daukat minik egiteko intentziorik
eta horrexegatik isiltzen naiz.
Pentsamenduak hitz bihurtzen ez diren bitartean
ez direla existitzen pentsatzen jarrai dezaket,
azken aldian ikus dezakedan gauza bakarra izan arren.
Nire pentsamenduek ez daukate ahots zehatzik,
baina buruhauste guztien atzetik beti dator
“AHAZTU ZAITEZ!” oihukatzen didan oihartzuna.

Zaila da mundua kontzeptu zehaztugabeekin irudikatzea,
baina hondartza honetan ez dago besterik.
Hona iritsi aurrekoaz ahaztuta nago,
beraz, hemendik aurrera hauxe da nire sostengu bakarra.

Bai, nik honi pentsamenduen hondartza dei diezaioket,
ni akabatzekotan dauden
sekulako olatuak eta itsasaldiak daudelako,
baina hori, azken finean, ni naiz, ni neu,
lau pareta hauen ezerezetik atera nahian.

PROSA A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Eppur si muove

Maidor Eraunzetamurgil Elustondo
Laskorain Ikastola
Tolosa

Pauso ziur eta azkarrez desplazatzen naiz karrikan zehar. Farolek igorritako gerizpeari nire bidea gidatzen uzten diot, bihotzaren atabalak konpasa markatzen didan artean.

Arnas estu arin batez, korrika nabilela konturatu naiz. Ahotik jaurtitako lurrinarekin batera, aire izoztuak biriketari uzten duen sentazioa gustatzen zait. Oinak azkar doaz, belaunek inpaktu arina jasaten dute, baina kontzientzia, aldiz, harlauza bakoitzean ubera utziko balu bezala mugitzen da, iraunkor.

Bihotz taupadak geroz eta azkarragoak dira, eta lainoek askatzen duten euri jasa ez da inolaz ere erdeinagarria. Ortzea suminduta dago, baina ez nuke jakingo esaten zergatik. Eguna amatatzeaz dago, eta hasi den bezala amaituko da; goibel, lauso, baina goibeldura samur batekin, unaduraren antzekoa dena, etsipenez loak amoroski hartuko zaituena. Lo-kantak ditugu maite, ordea, insomne izaten jarraitzen dugu, bai gorputzez, eta bai arimaz.

Pentsamenduen joan-etorri etengabeak errealitatea nola difuminatzen, abrumatzen duen ikusten dut izkina honetatik, ezin dut inolaz ere esku hartu. Autoanalisis alde batera utzi behar izan dut, oinak putzuaren sentikortasunaz busti eta ernegatu direnean. Behatzak kiribiltzen dira halako hits batek bideratutako plazer solemnean. Une batez, begiak itxi eta kaleko argiek tirokatutako lilura jada ez hain atsegina ahantzi nahiko nuke, eta jauzika jaisten ditudan eskailera hauetan barna jaitsi beharrean, hartxintzar eta lupetz artean ibili. Sartaldean ilunabarrak telioia nola ixten duen ikusi. Bidea hautatu nahi nuke, orbel artean. Bidea jarraitu nahi nuke, itsaslastar batean. Izorra hadi haizea eta eraman nazala mareak.

Patrikak nola husten diren igarri dut, baina ezin naiz itzuli. Zimiko batez, ordulariaz oroitu naiz, nahiz eta nire denbora lerroan, ordularirik gabe, bizitza aiseago igarotzen den.

Eskumako eskumuturra begiratu, bederatzia eta hiru; trenera iritsiko naizela ziurtatzeak, halako jabaltasun bat eman dit.

Gero, nire mikromunduan sartu naiz estazioko atea gurutzatu orduko. Baliteke beste behin neure buruari aspaldi eskoratutako galderak kuestionatzen hastea; erantzunik ez eta galderak eternal. Behin edo behin izaten dut su-etenik bihotzaren eta buruaren arteko gatazketan, batez ere, barnean daramadan mamu horrek gorputzaren mugak gainditzen dizkidanean. Ideiak eta aginduak korapilatzen badira, askotan ez dira kabitzen bularrean daramadan kutxan, beraz, eztarrian gatibatzen da martirioa. Etorbeldurrez, zingoa garaitu dezake, eta gesal artean galdu naiteke halabeharrez. Lorratz iluna inoiz ez da bazkatzen, nor bere burua norberaren arerio denean ere. Akitu egin naiz. Trenari itxarotea besterik ez zait geratzen.

Oraingoan berriz, burdinazko zutabe honetan emeki pausatu naiz. Barruan dudan mundutik at hasi naiz begiratzen; hotzez, ia hertsirik ditudan leihoetatik behatzen dut ingurua. Zutabe sendo hau da nire bizkarraren euskarri, postura zurrun eta izoztuan daude biak. Bizkarrezurretik barreiatzen den hozkirriak, gorputz osoan zehar uhinen antzeko sentsazioa zabaltzen du. Uhin hauek dira besaurreetako iletxorik ttipiena ere tente jarrarazten dutenak.

Era berean, nire atentzioa itzarri du zerbaitek; geltokiko isiltasunak, hain zuzen ere. Ahotik jaurtitzen dudan lurrin berberak ene ikuspuntua nahasten du, baina ez du axola, ez dago eta inor nasa bakarti honetan.

Umela dut azala, umelak ditut arropak, eta begiak ere bai. Langarra inoiz etengo ez dela dirudi, oinpean putzuak ditut eta etxera joan nahi dut. Eskuak minberatu zaizkit, eta patriketan sartzea bururatu zait. Hezetasuna nabaritu dut, nire hatz ubelek palto urdinaren kanpoaldea topatu dutenean. Ermamiak nire sabelaldean babesten dira; honen epeltasunak beste behin biziberrituko balitu bezala, zainak gutxinaka nola dilatatzaren diren nabaritzen dut, mina handitzen da, eta berehala odolaren fluxua bizkortzen da.

Fluxu horrek oroitzapenak harrotuko dizkit aurrerantzean. Jende onaren siluetak dakarzkite gogora: aitona eta amona.

Umetan tren geltoki honetan iragan nituen orduz gogoratzen naiz, aitona-amonen magalean eseri eta trenen pasadizoari begira ematen genituen arratsaldeez; *trainspotting*-a. Denboraren larderiak zimurtutako esku haiei helduz galdutako uneak, eta haien ahots kordek erreproduzitutako elezaharrak. Zaharrak berri.

Eskuetako zirkulazioa berrezarri den aldiunean, ezin izan dut larrazken honetako ilbeherak uzten duen arrastoa saihestu, burua altxa eta erabat sorgintzen nauen ilargiaren presentzia begiztatu dut.

Bere argiaren esentziak eman dit halako energia gorakada bat, non urrunetik gerturatzen den trenaren fokuez ahaztu naizen, non errailetara zabukatu naizen. Galbidea.

Bidaia astraletik ernegatu behar izan naiz azkenengo tren honetara igotzeko, behingoz etxerako bideari ekiteko. Botoi berde bati sakatuz, bi atea irekitzen dira.

Bertara sartuko naizen unean, badakit beti geratuko dela nire osotasunaren zati txikiren bat hortik, estazio ingurutik, aitona eta biok esertzen ginen banku horretan seguruenik. Hark utzitako hutsunea ez da sekula ere aienatzen.

Urratsak zuzenak izan dira, koska gainditzea nahikoa izan da bagoiaren gainean egoteko. Bi aldeetara zuzentzen dut begirada, ea eserleku librerik topatzen dudan ikusteko. Nire atzean, txistu batek lagunduta, ateak itxi dira; berantegi da itzultzeko. Uste baino jende gehiago dago azkenengo tren honetan, ez da apenas eserleku librerik, antza. Laster abiatuko da, eta inertziaren eraginez oreka galdu baino lehen, han hondora zuzentzen hasi naiz eserleku baten bila.

Leihoaren alboko hutsunea gustatu zait, eta bertan jesarri naiz. Motxila bat dut magalean, nire paparra estaltzen duena, nire ondasun guztia gordetzen duena.

Lehen, ganoraz hartu ezin izan dudan sakelakoari gainbegirada bat eman diot eta amaren mezu bat topatu dut sarrera-ontzian: “Kaixo, Marina. Abisatu noiz zatozen, arren” dio. “Ez itxaron afaltzeko” erantzun diot azkar tekleatuz.

Burua pantailatik altxatu bezain pronto, alboko botoia sakatuta mantendu dut behingoz itzali den arte. Kremailarako zirrikitutik barna sartu dut konpartimendu txikira, eta handia dut orain irekitzen.

Ezker eskuaz zeozer bilatzen ari naiz blai eginiko motxila honetan. Karatula leun eta sendo batekin egin dut topo.

Hura heldu eta kontu handiz atera dut; ene beginiek harmonia eta ondoezaren aurka egin dute talka, lengoaiak paperean eskaintzen duen domaiaren aurka. Orrialde batzuek

tolesdurak jasan dituzte, eta izkinak ahul daude, paperaren zelulosa zuntzek uholdea xurgatu balute bezala.

Toles horietako bat hartuz, hitzen apalategia ireki dut, eta lerroartean ageri den Federicoren izkribu batek hunkitu nau arrakala batez:

*O ijitoen hiri!
Nork ez zaitu gogoratuko ikusi ostean?*

Osterantzean, joanekoa soilik den billetea ea gainean neraman errebisatu nahi izan dut; diru zorroan miatu eta hor dudala ziurtatu dut. Gainerakoan, nortasun-agiria falta dudala ere ohartu naiz, ez naiz artegatu, lasaitua hartu dut. Ni benetan nor nintzen egiazta zezakeen agiri bakarra galdu dut. Oraindik zehaztu gabe daukadan nortasuna, erabateko askatasunez onbideratzeko astia izango dut orain.

Bidenabar, errailei jarraika desplazatzen garen honetan, inguratzen nauten bidazti guztien aurpegi hutsalak irudikatzen saiatu naiz.

Bati bi begi jarri dizkiot, eta hirugarrena kokotsean. Besteari, begitartean belarri bat ipini diot. Ikusi beharrean begiratu zezaten, aditu beharrean entzun zezaten.

Bere amaren besoetan zegoen haurrari berriz, ezin izan diot sudurrik ipini, etorkizunaren ke beltza bere biriketetan sar ez zezan. Ondorioz, ahotik arnastuko du, eta hortzak ustelduko zaizkio, baina ez dakit poluzioagatik edo opioagatik izango den.

Halaber, bidaiari bakoitzari egokitutako ertilanak amaitzean, itzulinguratutako erliebe menditsura

transportatzen naiz. Ikuspegi panoramikoa eskaintzen du altura honek, eta ortzi-mugetan mendi magal eta tontorrak bistaratzen dira.

Bihurgunez jositako azalerak tolesten dit zirrara, naturaren magiak, hain zuzen ere. Zuhaitzi eta basoen esentzia sartzen da leihoko zirrikituetatik, gutariko bakoitzaren arnasan barneratu nahian edo.

Mendi garaia alde batetik bestera pasatzeko, honen oinaren erdigunean kokatutako tunela igaro beharrean gaude, dena ilun, dena distiratsu.

Tunela guztiz zeharkatzean, bertan hamarkada batzuk iragan bagenitu bezala, trenaren barnealdeko hormak huntzaz eta laharrez estali dira. Denbora ez da lausotzen, ziztu bizian doa sutzarraren noranzkoan.

Gainerako bidaiariengan ere nabaritu da hori, lurrin gozoa darie bakoitzari bularrean hazi zaizkien geranioei. Orduan, amaren balkoiko geranioak etorri zaizkit gogora; nola gauero ureztatzen zituen, nola mimatzen zituen, nola neguko izozteetan, babesa emateko, manta zahar batez estaltzen zituen. Nola zaintzen zituen. Nola zaintzen ninduen.

Zuriz inguratuta dago trenbidea, eta goi-mendietako musketa freskoa bidelagun, elur-maluta potoloen erorketa libreaz txunditzen naiz. Ez dute presarik lurrera iristearren, bidean desintegratu egingo dira agian, banandu egingo dira, edo desbideratu egingo dira; hala eta guztiz ere, beraien denbora hartuko dute.

Pultsu geldoaz, ingurune hartatik urrundu ahala, desnibel positiboa negatibo bilakatu da, etengabe ari gara jaisten.

Bidaian aurrera goazen heinean, leihoaren bestaldean bizitzak bere tragikomedian darrai. Esan dezaket itsas maila geroz eta gertuago sumatzen dudala. Gurmak orientatu nau kostalderaino.

Orain artekoa aintzat hartuz, enbatan barneratzen garelarik, kalatxorien hegaldia ikusten dut itsaslabarretik haratago. Errailen hedadura kolosala da, eta morruaren amaieraraino ere ailegatzen da. Olatu zirimolak nagusitu zaizkit bistan, eta itsaskirria ere bai. Ikaragarri gustatzen zait itsasgora. Brisaren xarmak hartzen du nire mireспен guztia, dena den, harrizko kaian amarratutako batelen balantza nabarmentzen da. Kaia xumea da, hainbat zurezko txanel eta ontzi txikiren atsedenleku bilakatu da. Denek dituzte amura eta karela hondatuta, denboraleak elkarren artean kolpatzera behartu izan balitu bezala. Arranplan, arraun eta estropu zahar batzuk daude botata. Ez da garai bateko marinel eta sardineren arrastorik.

Barlobentotik gatoz, abiadura azkartzen ari da, eta kaimuturra hurre dago. Galgek ez dute erantzuten, askatu aingura.

Gurpilen kurrinka isildu da: ateen eta bentilazio-konduktuen junturetatik ura sartzen hasi da, arranplako maldatik ozeanoaren jitoan murgildu gara. Ur-azalean behera, hainbat batel hondoratzen dira gurekin batera. Sakonera handitzen doan heinean, presioak ere gora egiten du, baina ez dirudi hori helmugara iristeko oztopoa izan daitekeenik. Denbora aunitz daramagu horrela, eta gainerako bidaiariak zutik jarri dira, bagoira sarturiko urek haien arnasbideak estal ez zitzaizten.

Jarraian, zonalde abisaleko argitasun ezaz, gutariko bakoitza loak hartu eta ziplo eroriko da. Ni ere ahozabalka

hasi naiz, hortaz, asko iraun ez dezakedala eta, bizitzaren zentzua itzaltzen dihardut. Urak masailetaraino estaltzen nau, eta ezin ditut begiak erne mantendu. Gainerakoen deiadarrak urpean ezabatu, eta lo-kantekin nahasten dira.

Behin kontzientzia berreskuratuta, hego-haize bortitzaren braustada sentitu dut eta asalduraz ireki ditut begiak. Karranka berri bat dario trenaren abanteari.

Non gaude? Gainerako bidaiarien zurrumurrua kondentsatu da. Inframunduaren mintzoa.

Leihora begira jarri naiz, paisaia erabat aldatu dela ikus dezaket. Labar harritsu eta gorritzak ikusten dira, eta materia guztia urtzen ari denez, zirkinik ez. Ostertza, ufada sutu batean amaitzen da, eta milaka, agian milioika arimen gorputz biluziek konbustionatzen dute sute amaitezin hura. Errautsa da dena, harkaitzak odol koagulatuaren tonalitatez daude pigmentaturik. Sufrimenduen alkimia.

Nire arropak une batetik bestera idortu dira lakuak igorritako berotasunarekin. Nor dira ba, zerutik eroritako aingeruak?

Hein batean, larritzen hasi naiz, eta itolarria sentitu dut, baina beste galdera bat otu zait korapiloa eztarrira goratu den momentuan.

Zein izan liteke bide zuzena, baldin eta ez balego zuzenbiderik?

Trena gelditu da bidaiaren azken geltokian. Bi aukera ditut, erabaki korapilatsu eta aldi berean soila da: hemen jaitsi edo trenean gelditu. Bihotzari jarraitu edo buruari kasu egin.

Orduan hasi naiz ulertzen, orain ulertu dut guztiz.

Burua bereak egiten saiatu da. Inkisidoreak, beti bezala, sentipenak anulatu nahi izan dizkit. *Eppur si muove.*

A zer inozoa, helmuga okerrera iritsi naizela pentsatzea ere...

Garaiz iritsi naiz, eta nire oinek lurreko hautsa zapaltzen dutela, onar dezaket Josebak oraingoan ere arrazoia bere alde izan duela.

Trena infernurantz doa beti.

Izarrak zeruan

Onintze Arrastia Mauleón

Lizarra BHI

Lizarra

Ez nuen zerua inoiz ikusia.

Ez eta kanpoko mundua ere. Ez nekien ezta mundu bat zenik ere nik ezagutzen nuenetik haratago. Baina ikusia ez banuen ere, mundu hura imajinatzen saiatzen nintzen egunero, gogobetetasunez saiatu ere. Eta zinez ederra izanen zela pentsatzen nuen; horregatik, urteak aitzina egin ahala, mundu berri hori ezagutzeko nire gogoak handitzen zihoazen.

Banekien zerbait hari buruz. Liburuak eskaintzen zidaten informazio guztia, eta ikasitako orotik, zerua zen jakin-minik handiena eragiten zidana, egunsenti laranjatuenetik gau izartsuenera. Baina eguzkia baino gehiago, izarrak ziren osorik liluratzeko nindutenak, eta beraiekin amets egiten nuen etengabe.

Gure etxetxoak lau gela zituen: sukalde bat, aldi berean jangela zena; nire liburuak gordetzen zituen egongela bat; eta azkenik, amarendako eta niretako bi logela.

Zeren ama zen ezagutzen nuen pertsona bakarra, ez baitzen bertze inor inguruan. Halarik ere, berarekin baino, liburuekin iragaten nuen denbora gehiena, oso emakume isila baitzen. Hasiera batean, sinetsita nengoen munduko

gizartea gu biok osatzen genuela, eta ez dakit zer sentitu nuen gehien, ikara ala alegrantzia, konprenitu nuenean lau pareta horietatik kanpo gu bezalako bertze milioika pertsona zeudela.

Orduan, ideia bikaina iruditu zitzaidan nire amari galdetzea, bazkaltzen ari ginen bitartean, ea zer zekien gainerako gizakiei buruz. Geroago, ordea, onartu behar izan nuen ezinezkoa zela ama kanpokoari buruz hitz egitera bultzatzea. Eta bere begi gris lainotsuei begira, ahoa mutu zeukala, etsipenez ulertu nuen bilatzen nituen erantzun guztiak bakarrik liburuetan aurki nitzakeela.

Hala ere, eta irakurtzen nituen filosofoek erran bezala, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta galdera gehiago topatzen nituen bidean; eta horiei erantzun ezin nienez, etsipen lausoegian aurkitzen nuen neure burua, jakinik liburuak aski ez zirela, eta kanpora irten behar nintzela erantzunen bila.

Bazen jangelaren pareta batean ate handi bat, betidanik itxita ikusi izan nuena, eta, ustez, kalera eman zezakeena. Bada, ate hura irekitzea otu zitzaidan amak ikusten ez ninduen egun batean; eta erneguz jabetu nintzen atea ez zela mugitu, giltzaturik baitzen.

Gau hartan, ohatzean etzanda nengoela, etengabe egin nuen negar, begiak husterainoko malkoak jaurti nituen. Amaren pausuak entzun nituen ateaz bertzalde, eta, hura irekitzearekin batera, haren irudi argala ikuskatu nuen kontraargian.

—Ama —atera zitzaidan, negar-zotinen artean—, noizbait aterako al gara hemendik?

Burua makurtzen ikusi nuen, eskuak begietara eramanez, eta bera ere negarrez hasia zela ohartu nintzen. Niregana gerturatu zen, mantso-mantso, eta hurbilago zegoela, nire begirada bere aurpegira zuzendu nuen: malkoak masailetatik behera irristatzen zitzaizkion, eta, iluntasunean, haren begitarte malenkoniatsuak hitzik gabe utzi ninduen.

Minutu batzuk eman genituen horrela, biak isilik, bata bertzeari begira. Gero, negarrak lasaitasunari bide eman zion, eta amak, aspaldiko partez, zerbait erran zidan:

—Hobe duzu horretan ez pentsatzea, alaba maitea, eta nik bezala amore ematea. Hura konturatzea ez baduzu nahi.

Eta hori erranik, jiratu eta gelatik atera zen, niri hura hori nor zen ere galdetzen utzi gabetanik.

Momentu hartatik aitzina, galdera berdina ibili zen nire buruan bueltaka. Amak errandakoaren ondoren, jakin ahal izan nuen hirugarren pertsonaia bat zegoela gure istorioan parte hartzen, nik ezagutu ez arren; hortaz, etxean bakarrik bi geundenez, kanpokoia izan behar zuen, bai ala bai. Hala, ondorioztatu nuen pertsona hori gure beharrez arduratzen zena zela, hots, janaria nahiz arropa ekartzeaz; finean, denbora luze neraman zalantza honekin: amak nondik ateratzen ote zuen bizitzeko behar genuena, ikusirik ez zela sekula etxetik ateratzen.

Liburuei esker, hainbatetan irakurria nuen aita hitza, baina hori aparteko gauza bat bezala ikusten nuen, gurekin zerikusirik ez zuena. Ez nuen inoiz pentsatu nire aitarengan (aita bat existitzen bazen), harik eta amak hori erran zidan arte.

Eta amak amore emateko eskatu bazidan ere, ezin nintzen konformatu horrela bizitzearekin, zalantzasz beteriko gezur baten menpe. Orduan, agian gogo biziak bultzaturik, bertze ideia bat bururatu zitzaidan.

Eguneko ordu gehienak egongelan pasatzera ohituta nengoenez, liburuetan murgilduta, ez nintzen etxean gertatzen zen ezertaz konturatzen, ez eta amak egiten zituen gauzez ere. Bazen garaia, bada, gehiago ikertzeko. Eta egun batez, gosaldu eta gero, jangelatik joan beharrean, eseririk nengoen tokian itsatsirik geratu nintzen, begirada ate misterioetsuan iltzatuta.

Amak harriduraz begiratu ninduen, baina ez zuen deus erran; une horretan, bereziki eskertu nuen halako ama bat izatea, eta ez galderez josiko ninduen ikusnahi bat.

Ezin jakin zenbat denboraz egon nintzen hor eserita, jarrera berean. Halako batean, ama bazkaria prestatzera sartu zen, eta biak azkar jan genuen, elkarri ezer erran gabe. Ondoren, gelatik atera zen berriro, eta nik, temati, lehengoarekin jarraitu nuen, zerbait aurkitu behar nuelakoan. Ez zen horrela izan, ordea; behintzat, afarira artekoan, ez; eta ama sartzen ikusi nuen berriz ere, lehen bezala, gure egun hartako afaria osatuko zuten jaki sinpleak mahaira ekarriz.

—Arren, ez zaitetz saiatu buruan duzuna egiten —
erregutu zidan amak, haragi zati bat ahoratzearekin batera.

Isilik gelditu nintzen une labur batean, zer erran jakin gabe.

—Eta zer egingen dut, ama? —atera zitzaidan behingoan, amaren aurpegi goibelari so eginez.

Altxatu zen, platerak eta mahaiko hondar guztiak bildu eta murrizt mintzatu zen:

—Damutuko zara.

Zernahi gisa ere, bere hitzetan ez zegoen amorrurik, ezta ardurarik ere.

Atsekabea zekarren haren ahots baxuak.

Horrenbertzez, dilema handi baten aurrean ikusi nuen neure burua: amaren aholkuei men egin ala nire desirek eta jakin-nahiak eskatzen zidatenari jarraitu.

Bigarrena aukeratu nuen.

Eta helburu finko bati jarraituz bezala, ia gau osoa aterantz begira iragan nuen, zerbaiten zain, bai bainekien zerbait hori zetorkidala, etorri ere. Hala izan zen. Bat-batean, sarraila mugitzen zela aditu eta, begiak erne, ateaz bertzalde zegoen pertsona bat begiztatu ahal izan nuen, baita berak ni ere.

Gizon bat zela ohartu nintzen, aurpegiko bizarra ikusi nionean. Eskuetan poltsak zekartzan, eta irribarre bat ahoan.

—Aita? —galdetu nion, babesgabe sentitzeaz bat. Eta are babesgabeago sentitu nintzen, hura niregana gerturatu zenean, irribarrea handitzen zitziola.

—Hara! —oihu egin zuen bere ahots zakarrak—. Alaba maitea!

Altxatu eta atzerantz jotzeko imintzioa egin nuen, harik eta zerbaiten kontra talka egin nuen arte. Nire ama zen. Eta

jiratu bezain laster ikusi ahal izan nuen bere ikarazko aurpegia, artean zailtasunez arnasten zuela. Orduan ulertu ahal izan nuen dena, eta ez nuen segundu batez ere duda egin handik lasterka joateko, amaren larritasunezko begiradak horretara bultzatzen ninduen bitartean. Hori izan zen aita ikusten nire lehen eta azkeneko aldia.

Ez nintzen logelatik atera egun batzuetan. Ez nuen ezertarako gogorik, ezta amak aldizka ekartzen zidan janaria irensteko ere. Azkenean, bete-betea topo egin nuen egiarekin, gogorregia bazen ere; eta oraindik erantzunak falta zitzaizkidan arren, lehengo galdera guztiak zentzugabeak begitantzen zitzaizkidan. Kontrakoa sinesten saiatu banintzen ere, arras segur nintzen ez nuela ez zerurik, ez izarrik ikusiko; lau pareta horien artean bizitzera zigortua nintzen; eta hori pentsatze hutsak tristura zekarkidan, tristurak, gogo eza; eta gogo ezak, desolamendua.

Halako egun batean, ama agertu zen bertze alditan bezala, plater bat eskuan zeramala; baina hori mesanotxean utzi beharrean, ohean eseri zen, nire ondoan.

—Badakit zer pentsatzen duzun —erran zuen—. Badakit zure aita pertsona txar bat bezala ikusten duzula.

—Gure salbatzailea al da? —amorruzkoak ziren ahotik atera zitzaizkidan hitzak. Baina amaren penazko aurpegia aztertu nuenean, jarrera aldatzen saiatu nintzen, eta samurtasun handiagoz mintzatu nintzaion—. Ama, maite zaitut; eta badakit zuk ere maite nauzula. Horregatik entzun behar nauzu orain. Ez dakit zergatik gauden hemen, ez eta kanpoan dugun mundua nolakoa den ere. Zergatik, ama? Erradazu, faborez. Zergatik?

Atsekabezko hasperen bat egin zuen, begirada lurrari so.

—Hala izan behar duelako.

Eta altxatzen saiatu zen. Nik ez nion utzi, ordea, eta bere besoa indarrez heldu nuen.

—Mesedez —erregutu nion.

Hastea kostatu zitzaion, baina azkenean lortu zuen urte haietan gordetakoa kontatzea:

—Hark sartu ninduen hemen, oraindik nire sabelean zeundela, eta gure onerako zela hitz eman zuen, familiaren onerako. Mundua zuk ezin irudika ditzakezun gaiztakeriez beteta dago. Maite gaituelako egin zuen hori, konprenitzen duzu orain?

—Eta horregatik ezkutatu nauzu orain arte harengandik?

Larritasunezko aurpegia jarri zuen, ahotsa dardarka atera zitzaion:

—Zuregatik egin dut.

—Ba, hori akitu da. Hemendik aterako gara.

—Ez! —amaren garrasiak ahozabalik utzi ninduen—. Ezin duzu!

Bere ezohiko jarreraz jabetu zelarik, barkamena eskatzen ahalegindu zen.

—Kaiola batean giltzapeturik gaitu gizon horrek —adierazi nuen—, eta maite duenak ez du inoiz halakorik egiten.

Jaiki nintzen, janariz betetako platera hartu eta, ama hor utzita, nire logelatik atera nintzen, lehen aldiz aita ikusi nuen egun horretatik. Amorruak gosea piztu zidan, eta, jangelako mahaian eserita, amak prestatutako janaria gogo biziz irentsi nuen. Gero, ate gogaikarriari hurreratu nintzaion, eta ostikadak jotzen hasi, geroz eta bortitzago.

Lurrean bukatu nuen, arnasestuka. Alferrik zen, horrela ez nintzen inora ailegatuko. Baina ideia zoroak nonahi daudenez, nahi izan zuen patuak halako ideia bat bururatzea, nor eta niri. Begirada tresnen kaxoian pausatu nuen, eta hura irekitzean, bilatzen nuena aurkitu nuen.

Ordu batzuk geroago, ama lehengo tokian aurkitu nuen; nire ohatzean jarria, aurrera begira, burua noraezean. Zer erran ez nekiela, bere ondoan belaunikatu nintzen, burua eta besoak bere zangoen gainean ezarri, eta bere eskuaz nire adatsa orrazten sentitu nuen, eztiki. Momentu gozo hura gozatzen egon ginen, betierekoa iruditu zitzaidan tenore batez; eta iraun zuen bitartean, zerua, izarrak, mundua nahiz gainontzeko pertsonak ahantzi nituen. Biak baino ez geunden hor, ama eta ni, elkarren beharra genuela.

Bat-batean, haren eskua geratu zen, eta errealitatera itzuli behar izan nuen.

—Zer da...? —entzun nion erraten, tonu baxuan.

Hortaz, konturatu zen jada gertatzen ari zenaz. Ohartu nintzen sudur-hobiak handitzen zitzaizkiola, eta kopeta belzten; eta nik halaxe egin nuen ere, eta erre usaina sumatu nuen. Ama korrika bizian joan zen atera, eta, kanpokoak ikustean, beldurrezko garrasi bat atera zuen. Ez zegoen atzera bueltarik.

Sugarrak paretetik gora igotzen zirela ikusi nuen, ondotik zegoen dena irensten. Ikuskizun izugarri nahiz ederra zen aldi berean, eta lasaitasunez ikuskatzeko parada izan nuen, amak ez bezala. Gutxinaka-gutxinaka, dena kiskaltzen zihoan; gutxi falta zitzaion suari gureganaino heltzeko, eta beroa sentitzen nuen azalean, geroz eta biziago.

Amari eskua indarrez eutsi, eta erretzen ari zen pareta bat seinalatu nion bertze eskuarekin, berak ikus zezan. Bere ahotik “ez” hitza atera zen, inolako soinurik egin gabe. Paralizatua zegoen, begi arranpaloequin, gihar bat ere mugitu gabe.

Gauzak abiadura handian gertatu ziren. Ama nire atzetik eramanez, pareta horretarantz abiatu nintzen, eta, suak zulo bat egina zuela egiaztatuta, amari prestatzeko agindu nion. Hala, abiada bizian joan ginen harantz, eta, begiak itxiz, hura igarotzeko salto egin genuen. Segundo batzuen bueltan, bero erregarria sentitu nuen larruazaleko poro guztietan, eta gure akabaila iristear zela pentsatu nuen. Baina berehala freskotasuna itzuli zen, eta biak zerbaiten gainean erori ginen.

Kolpea ez zen arras handia izan. Usain sarkor bat nabaritu nuen, sudurretik goiti zihoana. Begiak ireki, eta belardi baten gainean etzanik ginela ohartu nintzen. Ama nire ondoan zegoen; begiek suaren argitasunarekin dirdaitzen zuten, hain zuzen ere, lehen gure etxea izandako suteari so baitzegoen.

—Bizitza berri bati bide emateko, antzinako bizitza suntsitu behar da guztiz —erran nuen.

—Zuk uste? —kuriostatez aztertu nuen bere aurpegia, emozio ezezagun baten bilaketan. Desberdin nabaritu nuen ama, zama bat gainetik kendu izan banio bezala.

—Hil behar ginela uste nuen —adierazi zuen.

—Baita nik ere —erantzun nion.

Elkarri begiratu genion. Irria marratu zitzaigun aho-mazeletan, eta, aspaldiko partez, ama zorionsu ikusi nuen, inoiz baino alaiago.

—Eta orain zer gertatuko da gurekin? Nola hartuko du aitak gertatu dena?

—Aski ongi konprenitu nuen amak denbora puska bat beharko zuela egoera berrira moldatzeko, baina haren poz planta ikuste hutsarekin, baretasun handia hauteman nuen.

Gozotasunez besarkatu nuen haren gorputza, eta begiak zerurantz zuzendu genituen aldi berean.

Haren edertasunak mutu utzi ninduen.

Izarrak.

Nire poztasuna handituz zihoala sentitu nuen, eta, harekin batera, lehendik nuen izarrekiko mirespena ere. Deskribaezina zen aurrean neukan ikuskizuna: emeki-emeki itzaltzen zihoan suaren gainetik, zerua osatzen zuten milioika izarrek etenik gabe distira egiten zuten.

Azkenean, lortua nuen.

Lortua nuen kobazulotik mundura ateratzera, izarrak
zeruan zituen mundu horretara.

Behingoz, askea nintzen.

240 segundo

Txomin Valverde Costa
Artaza Romo BHI
Leioa

Entzunareto erraldoi ilun hura isiltasun betean geratu zen berriro. Piano aurreko eserleku estura itzuli nintzen eta kontzertu horretako azken pieza jotzeari ekin nion, nire bizitza osoan joko nuen azkena hain zuzen ere.

Hasi aurretik, tresnaren tekla distiratsuen gainetik pasatu nuen eskua, maitale baten azal leuna laztanduko banu bezala. Azken finean, pianoa izan zen une oro lagundu ninduen bakarra, nire bizitza osoko lagun zintzo bakarra. Berrogeita bi urte betetzera heldu banintzen, hari esker zen. Ongi nekien ordurako urteak eramango nituela lurpean nire piano maitearen adiskidetasunak behin eta berriro salbatu izan ez banindu. Gau horretan, ordea, ez zegoen konponbiderik, azkena izango zen erremediorik gabe. Nekatuegi nengoen pianoari eusteaz bizirik irauteko gogoen bila. Nekatuegi nengoen bizi nahi ez izanda bizitzari eusteaz.

Milaka pertsona batzen zituen antzoki dotorearen isiltasunean nire pieza kutuna, benetan barneko sentimendu eta gogoetak eragiten zizkidan melodia malenkoniatsu erromantikoa, jotzen hasi nintzen. Chopin maisuak konposatutako bigarren nokturnoa zen, kontzertu hartakoa bezain lasaiak ziren gau goxoetan lasaitasunez gozatzeko idatzia.

Normalean, efektu hori zeukan niregan lorik egin ezineko gau luzeetan etxeko egongelan jotzen nuenean. Orduan ere, aretoa sekulakoa izan arren, nire barnean sentitzen nuen urduritasun sua amatatu egin zen eskuak pianoaren gainean jarri nituenean, jotzen hasteko prest. Alabaina, lasaitasunak ez zuen luzaroan iraun, melodia horrek gau horretan zerbait berezia zeukan eta. Berehala, nire begiek entzuleen buruak eta argazki kameraren flashak ikusteari utzi zioten.

Pianoak eman zituen lehenengo nota argi eta lasaiek, haur baten logela txikira eramanean ninduten. Hormaren kontra, idazmahaiari eta leihoari bizkarra emanez, zurezko piano xumea jotzen ikasten zuen sei urteko ume ilehoria ikusi nuen. Amaren esku leun maitekorrek haurraren atzamar txikiak tekla zurien gainean kokatzen zituzten kontu handiz eta jarraian teklak nola eta zein ordenatan sakatu behar zituen irakasten zion, seme bakarra izanda eguneko minutu guztiak igaro ahal zituelako horretan. Mutilak behin eta berriz erantzuten zion bazekiela nola egin behar zuen, ez izateko hain astuna. Gizajoak ez zekien oraindik zein oroi pen goxo bihurtuko ziren amaren piano eskola labur horiek, bere bizitzako pasiorik indartsuenarenganako lehenengo hurreratzea.

Urte batzuk geroago, dudarik gabe, lortu zuen musikak bere barnean pizten zuen grinaz konturatzea. Orduan, amak berak etxean pianoa jotzen irakasten jarraitu bazuen ere, aitak kontserbatorioan ikasketa arautuak egitera bultzatu zuen. Hortik aurrera, egunak musika-eskoletara joateko irrikan pasatzen zituen, ikastetxeko lagun eta irakasleei arretarik eskaini gabe. Horrek arazoak ekarri zizkion, maisuekin eta ikaskideekin zuen harremana galarazi zioten,

baina berari bost; arratsaldeetan partitura amaiezinak irakurtzen zoriontsua zen.

Izan ere, ez nuen umearen haurtzaroko irudi desatsegini ikusi, beharbada piezaren hasiera erabat lasaia zelako. Eskuak askatasunez mugitzen zitzaizkidan instrumentuaren bazter batetik bestera etengabeko lasterketa batean. Orduan, konposizioaren partiturak intentsitatea txikitzeko eskatzen zidan unean bertan, satinezko jaka beltzaren azpitik agerian neuzkan alkandoraren mahuka-biki distiratsuei erreparatu nien.

Melodiak tonu tristea hartu zuen eta aurretik sortutako atmosfera lasaia ilundu egin zen, zorigaitzaren adierazgarri. Urte batzuk lehenago kontserbatorioan ikasten hasitako piano-jotzaile gaztea azaldu zitzaidan berriz gogoan. Hamazortzi urte zituen oraingoan eta eszenak ez zuen haurtzaroko kutsu alai hura. Etxeko atea ireki eta pasabide estua ikusi zuen aurrez aurre itzaletan. Egongelan, aita topatu zuen, negar bizian. Ezer esan gabe, gazteak gertatzen zena ulertu zuen eta gurasoen logelara abiatu zen lasterka. Ohean ama ikusi zuen, inoiz baino zurbilago. Izaren artean etzanda mamua zirudien emakume behinola indartsua inolako zalantzarik gabe hiltzorian zegoen gaixotasun luze baten eraso suntsitzailearen ondorioz. Semea ohe ertzera hurbildu zitzaion, ama azken arnasan laguntzeko itxaropenari eutsiz. Muxua eman zion masailean eta aldi berean, esnatu egin zen emakumea. Hark besoa luzatu eta ohe ondoko mahaitxoan zeukan kutxa belusatua hartu zuen, semeari eskainiz. Mutilak kutxa ireki zuen eta barruan, zilarrezko bi mahuka-biki ikusi zituen. “Jaio zinenean aitonak eman zizkidan zuretzat eta nik utzi ahal dizudan herentzia bakarra dira orain. Maite zaitut, Martin” murmuratu zuen amak. Ez

zekienez zer erantzun, gaztea amari hurbildu zitzaion eta beste muxu bat eman zion, inoiz emango zion azkena.

Ezinbestean negarrari ekin nion pasarte hori ikustean. Seguruenez, antzokia betetzen zuten jarraitzaileek malkoak ikusi zizkidaten eszenatokiko urre koloreko argiaren eraginez eta horrela, haiek ere hunkitu ziren. Aurpegiko azaletik irristatzen zitzaizkidan malkoak gelditzeko modurik ez neukanez, tantatxoak teklen gainera jausten ziren eta haiek argia islatzean, diamanteena bezalako distira bitxia sortzen zuten teklatuaren bolizko piezetan. Ur eta argizko joko magiko horretan sartuta nengoela, nire onera etorri nintzen eta pianoak sortzen zuen musikak alaitasuna berreskuratu zuen goranzko kortxeen sekuentzia baten bidez.

Martinen aita izan zen orduan irudimenean azaldu zitzaidan lehena. Bere adinerako zaharregia zirudien, batez ere emaztearen heriotzak kausatutako kalteen ondorioz. Eszena horretan, berriz, dotore jantzita, lehen-mailako antzoki bateko eserleku erosoan zegoen eta harro zirudien. Jakina, ez zen emaztea hil zen urteko irudia, ezta bizpahiru urte geroagokoa ere. Semeak profesional moduan egindako lehen emanaldikoa zen, amaren heriotzaren ostean hamar urte inguru. Aita lehen lerroan eserita zegoen, semearengandik metro eskasera eta ondoan, hutsik zegoen eserleku bat zeukan, beharbada amarentzat erreserbatua. Gau hori aitaren bizitzako gaurik zoriontsuena izan zen, bere semeak ametsik handiena bete zuen gaua. Zalantzarik gabe, amaren bizitzako gaurik politena izango zen hura ere, bizirik jarraitu balu.

Chopinek arnasa hartzen utzi zidanean, burua entzuleengana zuzendu nuen, aretoko txokoren batean

aitaren begirada ernea bilatuz. Berriz pianoari begiratzeari ekin nionean, begiak itxi nituen gaueko izarren artean hegan egongo banintz bezala.

Nolabait Martinen bizitzako gaurik garrantzitsuena ere izan zen hura, baina ez bakarrik musikari profesionala bihurtzeagatik. Emanaldia bukatuta, kamerinora bueltatu zen pianista, izerditan blai eta lotarako gogorik baino ez zuela. Gela txiki horretan sartu zenean, berriz, emakume gazte eder bat aurkitu zuen. Bere adin berekoa zela iruditu zitzaion, baina ordura arte ezagutu zituenak baino askoz ere xarmagarriagoa zen eta gazteagoa zirudien lehenengo begiratuan. Hizketan hasi ziren eta Martinek, emakume misterioitsu hark liluratuta, afaltzera gonbidatu zuen. Hortik aurrera, gaztaroko urterik samurrenak bizi izan zituzten elkarrekin, munduko hainbat herrialde nahiz kultura ezagutuz eta sakonki maiteminduta.

Gozotasun handiz interpretatu nuen nokturnoaren pasarte hori, lasaitasun handieneko partea hain zuzen ere. Begiak itxita, partituraren jarraibide zehatzetatik aske jo nuen denbora batez, gogoan Martin eta Mirenen gaztaroko irudiak neuzkan bitartean. Eskumako eskuaz ordura arte piezan agertu ez ziren ornamentazio altuak jo nituen.

Soinu alai horiek bi solairuko txalet moderno eder batera eramán ninduten. Igerilekua eta guzti zeukan lorategi handi batek inguratzen zuen etxea. Lorategi horren atzeko partetik barreak entzuten ziren baita haurrentzako kanta tuntunak abesten zituen bikote baten ahotsak ere. Primeran moztutako belar leunean, bi urteko adina ozta-ozta gainditzen zuen neska ilehori batek dantza egiten zuen eskuekin txalo egiten zuen bitartean. Horrek eragiten zion poztasunaren eraginez, eguzkiak jotzen duen itxasoa baino distiratsuagoak ziren

begi urdin handiak erabat irekita zeuzkan. Bitartean, lorategiko belarrean etzanda zeudela gurasoek, Martinek eta kontzertuko neska misteriotsuak, alaba animatzen zuten zenbait kanta abestuz eta txalotuz. Gainera, umearen barrea entzuteak eragiten zien zoriona sentitzearren, oihu adoretuak botatzen zizkioten eta noizbehinka berarekin dantzatzen zuten haiek ere.

Jarraian, neska beraren haurtzaroko beste zenbait eszena azaldu zitzaizkidan, urteetan zehar nola hazi zen ikusteko aukera izanik. Gehienak momentu zoriontsu eta gozoak ziren: neskatxok lehenengo hitzak esan zituenekoak, ibiltzen ikasi zuenekoak, parkeko lagunekin jolasean igarotako arratsaldeetakoak... Pianoan ere, jotzen ari nintzen melodiaren gaueko atmosferak ematen zion kutsu malenkoniatsuaz gain, atal lasaia izan zen hori, partituraren aginduak jarraituz ez-titasunez jo nuena.

Halaber, piezak lehenengo aldiz tentsioa gehitzea eskatu zidan, aurretik interpretatutako guztiaren soiltasun naif hura apurtuz. Orduan, nire eskuek ahal zuten indar handienaz sakatu zituzten pianoaren teklak eta, aldi berean, barnean haserreak eta etsipenak sortzen duten sutea piztu zitzaidan.

Neska ilehoriaren gurasoak ikusi nituen haurra lotan zegoen bitartean sukaldean hitz egiten. Egia esan, solasean baino, eztabaida gogor baten erdian zeudela zirudien. Emakumea aulki zuri batean eserita zegoen, burumakur, arazo larrien aurrean burua eskuekin eusten dugunean bezala. Martin, berriz, sukaldetik mugitzen zen etengabe, negarraren aztarnak zeuzkan aurpegian eta oso urduri zirudien, espero ez zuen berriren bat jaso balu bezala. Gizona sukaldetik atera eta logelara abiatu zen korrika, emazteari hitzik esan gabe. Orduan, armairutik bere arropa

guztia hartu eta maleta beltz handi batean sartu zuen. Segituan, isats-piano distiratsu batek menperatzen zuen egongelatik pare bat traste eta sakelakoa hartu zituen eta sukaldean jarraitzen zuen emakumeari agur kaskar bat esanda, autoan sartu eta alde egin zuen.

Giro latza zen gogoan agertu zitzaidana tentsio handieneko une horretan, baina zailena konpas horiek jarraitzen zituen kadentzia jo nuenean heldu zen. Nota altuen sekuentzia azkar batek osatzen zuten konposizioaren pasarte hori eta segida hori jotzen nuen bitartean, irudi gogaikarriak igaro zitzaizkidan ziztu bizian.

Martin gero eta gaizkiago, nekatuago, etsituago agertu zitzaidan. Beti bakarrik ikusi nuen hainbat toki desberdinetan, baina guztietan zegoen bizipoz gabezia izugarria. Noizbait lehen-mailako pianista, seme, senar nahiz aita izandako gizona egoera negargarrian zegoen eta ez zirudien hortik ateratzeko ahalegina egiteko indarra zeukanik. Abiadura handiko flash baten bidez Martin ikusi nuen Europako zenbait herrialdetako taberna zikin askotako barren aurrean eserita, bakardade osoan, vodka hutsa edaten.

Orduan gogoratu nuen horregatik hautatu nuela gau horretako kontzertua nire bizitzako azkena izatea, Chopinen pieza liluragarri hura jotzen nuen bitartean nire burmuina zeharkatu zuten ilusioak nire oroipen propioak zirelako, Martin ni nintzelako, naizelako.

Azkenengo irudi sekuentzia horretan ikusitakoa jasan ezinik, nire buruaz beste egitea erabaki nuen emanaldi horren egunean. Ez nuen bizirik jarraitu nahi maitasunik gabe, alabarengandik urrun eta nire piano maitea lagun bakartzat nuela. Behea jo nuen, bai, jasan ezin nuen

agonia hiltzailean murgilduta bizi nintzen eta ez nekien nola atera.

Bigarren nokturno bikain horren amaiera jotzean, aldiz, zerbait aldatu zen. Azken atal honek ez zidan irudirik eragin, baina nire bizitzako norabidea aldatzeko behar nuen bultzada eman zidan.

Oroitzapen zital horiek gogoratu ondoren, piezak hasierako lasaitasuna hartu zuen berriz. Nik, ordea, aparteko indar eta gogoz jo nuen pasarte hori, musikak nire baitan eragiten zuen bizia berreskuratu banu bezala. Melodia horrek erabat ahaztuta nituen hainbat une alai gogorarazi zizkidan, aspaldian maite nituen pertsonak ekarri zizkidan gogora, eta azken nota indartsu horiek, itxaropena itzuli zidaten.

Horrela, konposizio miraritsu hori jotzen bukatu nuenean, txaloka altxatu ziren nire entzule leialei begiratu nien. Lehen lerroko bazter batean eserita, Olatz ikusi nuen, nire alaba maitea eta haren alboan, aita. Haien eskuman, aita nire zale ezezagun batengandik banatuz, eserleku bat zegoen hutsik, ama nonbait nirekin zegoeneko seinalea.

Gutxi gorabehera lau minutuz jo nuen nire bizitza osoa gogora ekarri zidan pieza magiko hura. 240 segundo inguruan inoiz gehien maite ditudan adiskideez oroitu nintzen eta 240 segundotan bizirik irauteko gogoak berreskuratu nituen.

Gau zoragarri hartan, antzoki ilun zein erraldoi batean, nire bizitzaren ilunabarra egunsenti argi eta eder berri bihurtu zen 240 segundotan.

Hesitik haratago

Xuban Senar Usandizaga

Pío Baroja BHI

Irun

Begira, nik ez nuen hemen bukatu nahi. Ez da nire errua Donostiako taberna bateko komunean itxita geratu izana, nirea ez den mugikor batekin. Esan nahi duzuen, harroputza naizela, baina egia da. Edozein kasutan, hamar minutu dira nire mugikorra estaldurarik gabe dagoela ziurtatu dudan azken alditik, eta kisketak fabrikatzen dituzten enpresei salaketa jartzea erabaki dudanetik. Ateratzeko itxaropenik gabe, mugikor txatxu hau hartu eta entzuten ari zareten audioa grabatzeari ekin diot. Agian honekin best-seller bat idatziko dut, Amazonen jabea bezain aberatsa izatera iritsiko naiz, eta lan bakarra ogasunaren zergetatik ihes egitea izango da. A! Bizitza perfektua. Hori, noizbait hemendik ateratzen banaute, noski. Martxa honetan, denbora emango dit hemen nola bukatu dudan azaltzeko, eta nire bizitza osoa kontatzeko. Eseri, hartu jateko zerbait, eta disfrutatu nire komeriez. Bai, baimena duzue nire kontura barre egiteko.

Lehenengo, argitu nahi dut jendearekin hitz egiten zeharo tamalgarria naizela. Ez naiz gai fundamentuzko elkarrizketa bat ere mantentzeko. Mila aldiz nahiago dut erotzat jo nazaten eta nire buruarekin hitz egin, beste edonorekin egin baino. Oraindik ez dakit nola arraio biziraun dudan hamazazpi urtetan. Suposatzen dut une jakin batzuetan normal aurpegia jartzen badakidala. Hala ere, ohartu naiz

bakarrik isolatze hori aldatu behar dudan gauza bat dela. Ikusten, ez naiz hain harroputza. Dena iazko irailean hasi zen, ikasturtearekin batera, duela lau bat hilabete.

—Iban Gorrotxategi? —Bizitzan gehien gorroto dudan momentua, dudarik gabe. Gelako jende guztia begira neukan, eskua apur bat altxatuz ia soinurik atera gabe erantzuten nuen bitartean. Irakasleak zerrendarekin jarraitu zuen ezer gertatu ez balitz bezala, baina niretzat bi segundo amaiezin horietan erlojuko orratzei bira oso bat emateko denbora eman zien. Beti gertatzen zait berdin. Gelakideei begiratuz, gehienak ezagunak nituen, ezagutzea urte osoan zehar hiru hitz eskas egitea bada. Bestela, inongo aldaketarik gabe igaro ziren gainontzeko orduak, nahiko isilik, batxilergoko bigarren mailan egoteak ematen duen errespetuak eraginda. Unibertsitatean sartzeko ardurak atzetik mehatxatzen gintuen, artzain-txakurrak ardiekin egiten duen moduan.

Nire plana betikoa zen, erraza: arretarik ez eman, ondo portatu, lanak egin, gainditu. Ahal izanez gero, nota onarekin, bestela, bostarekin. Jendearen arteko txutxumutxuak, erlazioak, festak, berdin zitzaizkidan. Jakingo nuen horiei buruz udan. Hortaz, lehenengo egun aspergarriak lasai igaro ziren. Etxean, giroa ez zen aldatu. Gurasoek ulertzen zuten nire espazio propioa behar izatea, edo behintzat, hori sinestarazi nahi zidaten. Behin niri buruz hizketan entzun nituen: itxiegia nintzela, eta nire adinekoengandik hain ezberdina izateak beldurtzen zituela. Min eman zidan hori entzuteak. Ez bereziki haiek pentsatzen zutelako, baizik eta egia zelako. Arraroa nintzen, antisoziala, eta ez nekien nola gurutzatu hainbeste urteren ondoren nire inguruan sortu nuen hesia. Besteengandik aldentzeko eta, batez ere, babesteko sortu nuen. Ze bai, errazagoa da egitea

besteari buruz zerbait badakizu. Informazioa, arma hilgarria da askotan.

Sermoi polita, bota dizuedana. Hori dena gutxi balitz, ikasturteko bigarren astean, fisikako irakasleak taldeko lan bat bidali zigun. Faborez, zer gara, hiru urteko umeak? Gelako guztion purrustada aditu nuen ia. Nahikoa lan genuen beste ikasgaiak gainditzen, ezezagun batzuekin kolaboratzen hasteko. Nire kasuan, fisikak bost axola zidan, talde lanari nion beldur. Uste dut soberan dagoela momentu horretan nire eskuek zuten izerdia aipatzea. Bien bitartean, irakasleak taldeak eratu zituen:

—Azken taldea: Aitziber, Iban, Aitor eta Maialen. —Ez ziren nitaz ahaztu, behingoz—. Denok zaudete, ezta? Esan bezala, bi aste dituzue lana emateko. Ez utzi azken momenturako, mesedez, aukera ezin hobea da hasieratik nota onak lortzeko.

Taldekideei begiratu nien. Txirikorda zuen neska bat, kirolari itxurako mutil bat, eta ile beltzeko beste neska bat. Nahiko arruntak, hirurak. Handik minutu eskasera, mezu bat iritsi zitzaidan mugikorrera, eta klase aspergarri orotan bezala, poltsikotik ezkutuan atera nuen. Arruntak ez ezik, langileak. Gaitzerdi. Atsedenaldian bilera deialdia. Patioko txoko batean geratu ginen, eta Aitziber hasi zen, txirikordaduna. Agerikoa zen lider sena zuela:

—Ea ba, garbi dago denok lortu nahi dugula nota on bat. Horregatik, lehenbailehen hastea proposatzen dut. Gaur posible duzue?

—Nik ez. Entrenamendua daukat. —Kirolariarena ez zen itxura bakarrik, beraz.

—Beno, eta bihar? —oraingoan inork ez zuen trabarik jarri. Asteartean geratu ginen, arratsaldeko bostetan. Koldo Mitxelena liburutegian, zorionez.

Zorionez esan dut, nire leku preziatuenetakoa delako. Hamaika arratsalde luze igaro ditut han, liburu artean sartuta. Arraroa naizela esango duzue, badakit, baina gutxi batzuk bakarrik dakigu aisialdi ona zer den. Alkohola edatera joatea dibertsioa dela esaten duenak, hantxe du atea. Egia da edatera joateko lagunik ere ez daukadala, baina ez gara horretaz ari. Astearte arratsaldean, liburutegirantz abiatu nintzen. Ama izugarri poztu zen plana neukala jakitean, ez bainion esan klaserako zenik. Sozializatzen hasi nintzela uste zuen, gaixoak. Oinez, laino goibel batzuen azpian, udako bero arrastoaz gozatzen nindoan. Iristen lehena nintzenez, misterioko sailean sartu nuen muturra, liburu berriren bat hartzeko asmoz. Agian, besteak iritsi aurretik maileguan hartzeko denbora emango zidan, aspaldiko partez...

—Misterioa gustatzen al zaizu? —Aitziberren ahotsak ikaratu egin ninduen—. Barkatu, ez zintudan izutu nahi. Nola du izena?

Liburua seinalatu zuen arte ez nuen ulertu zertaz ari zen. Badakit, batzuetan oso motela naiz. Lotsatuta, ahal bezala erantzun nion:

—Zera, *Mendekuaren hazia*. Eta bai, misterioa gustatzen zait.

Zer gehiago esan ez nekienean, nire salbatzaileak azaldu ziren: Aitor eta Maialen. Laster, aulkietan eserita ginen, fisikan murgilduta. Gezurra badirudi ere, lanari eta

konpainia onari esker, nire bizitzako hiru ordu arinenak izan ziren. Zortziak aldera, ilun zegoenez, etxera abiatu nintzen oinez Aitziberrekin, nire etxe parean agurtu ginen arte .

—Aizu, liburutegian hartu duzun liburuak oso itxura ona du. Nire nebari ere misterioa gustatzen zaio, zeri buruzkoa da?

—Irakurri dudanagatik, inspektore bat da protagonista. Bere erronka hiltzailea den gizon baten aurkako aztarnak lortzea da, hilketaren erruduna dela frogatzeko. Zenbat eta sakonago ikertu, orduan eta korapilatsuagoa bihurtzen da ikerketa. Hemen, Donostian, gertatzen da, gainera. Tira, barkatu, ziur denbora galarazten ari naizela, etxera joan nahiko duzu...

—Ez, ez eskatu barkamenik. Are gehiago, gustatzen bazaizu, esan, nebari gomendatzeko. Tira, hitz egingo dugu. Bihar klasera arte, orduan.

—Agur, bai. —Tentsioan zeudenik ere ez nekien gihar guztiak erlaxatzen sentitu nituen, Aitziber urruntzen zen bitartean. Aurreko eguneko txirikordak, arrasto bezala utzitako izurrak astintzen zizkion iluntzeko hego-haizeak.

Egun hartatik aurrera, zerbait aldatu zen nigan. Ez dut poetiko jartzeko gogorik, baina nire barnean isolatzeko sortu nuen hesiaren beste aldean, merezi zuten gauzak ere bazeudela ulertu nuen. Ez zela hain zaila, azken batean, besteak bezalakoa izaten saiatzea. Lortzea, beste kontu bat zen.

Aste hura eta hurrengoak espero baino azkarrago igaro zitzaizkidan, agian lanak arratsaldeak entretenitzen zizkidalako, agian azkenean eguzkia atera zelako. Dena den,

fisikako taldearekin eroso sentitzen nintzen, estreinakoz. Ez emozionatu, ez zen beste munduko ezer. Hala ere, klase eta atsedenaldi guztiak isiltasunean pasatetik norbaitekin hitz egitera pasa nintzen. Zuentzat normala izango den arren, niretzat nobedade hutsa zen. Aitor igerilaria dela jakin nuen, astean lau aldiz entrenatzen du, eta Maialeni marraztea gustatzen zaio. Aitziberrekin, oraindik erlazio estuagoa sortzea lortu nuen. Orduetik, etxerako bidea elkarrekin egiten dugu oinez, eta gaztelanian trebea naizela deskubritu zuenetik, laguntza eske etortzen zait ahal duen guztietan. Amaren aurpegia ikusi bazenute, behin etxe parean hizketan ikusi gintuenean! Neska horrek badu zerbait; ez dakit begiratzeko modua den, edo zer, baina beti iruditzen zait badakiela zer pentsatzen dudan. Bera zen jendearen begiradatik ihes egiten nuela ohartu zen bakarra, eta horri aurre egitera bultzatzen ninduen. Begiak jaiste askotan egiten dudan keinua da, aitak dio besteengandik ihes egiteko egiten dudala, isolatzeko, alegia. Aitziberri esker, gutxiagotan egiten dut, eta begirada lurrerantz joaten zaidala nabaritzen dudanez, ekiditen saiatzen naiz. Hala eta guztiz ere, badakit hobetzeko asko daukadala oraindik.

Gogoan dut, duela aste batzuk, klasetik bueltan gentozela izan genuen elkarrizketa bat. Bere familiari buruz hitz egin zidan, neba eta ama. Aita beste herri batean bizi zen, emazte berriarekin, eta kontatu zidanez, ez dute erlazorik izan aspalditik. Disimulatzen saiatzen bazen ere, goibeltasuna nabari zitzaion ahotsean. Nitaz fidatzen zela garbi erakutsi zidan, zauriak azalean utziz, eta biok min emateko arriskua hartuz. Nik, ordea, ezin izan lurrera begiratzea besterik egin.

—Aizu, lasai, altxa begiak. Ez daukazu zertan ezer esan, kontatzeko beharra nuen, besterik ez. —Begietara begiratzea

lortu nuenerako, berak al denduta zituen bereak. Aurrera begira geratu zen, begi umelak lehortu nahian. Zerbait esan nahi nion, bere konfiantzari nolabait erantzuteko:

—Biok dakigu ez naizela pertsona egokiena hau esateko, baina nire iritziz, egin behar zenuena egin duzu barrua askatzen, sentitzen duzuna azaleratzen, ze bestela, hori dena pilatzean, auskalo noiz eta nola lehertuko den. Ni gehiegitan lehertu naiz jada, nire bakardadeko hesian geratzeagatik, eta eskerrak eman nahi dizkizut, hortik ateratzen ari naizelako, zuri esker.

—Garbi dago aurreratzen ari zarela, zure begiek jada ez dute nireengandik sarritan ihes egiten. Eskerrak zuri, entzuten jakiteagatik. Hitz egiten jakitea baino are garrantzitsuagoa da niretzat.

Hunkigarria, ez al da hala? Egun honetan, Aitziberrek nire barruko palanka ezkutu bati eragin ziola iruditu zitzaidan. Ez dakit azaltzen. Handik aurrera, gure eskuek askotan ukitzen zuten elkar, kasualitate hutsez. Txinparta elektrikoak sentitzen nituen, korronterik egon gabe, eta, aurrera jarraitzeko behar nuen indarra ematen zidan. Niretzat ia berriak ziren ezti koloreko begiekin begiratzen ninduen. Nola ez nion utziko begietara begiratzeari? Buruak kasurik ez egiteko zioen. Bihotzak, aldiz, ez zion bularrean behin eta berriz salto egiteari uzten. Egoera horretan, nire barruan euskal derbi batean baino eztabaida handiagoa zegoen: batetik, izugarri estimatzen nuen Aitziber laguna, eta sentimendu guztiak ondo lurperatu nahi nituen. Nire emozioek adiskidetasun hori urra zezaketen, eta ez nengoen prezio hain alturik ordaintzeko prest. Bestetik, ordea, Iban baikorregia zegoen, dena primeran irtengo zela pentsatzen zuen inozo ameslaria.

Azkenean, duela hiru egun, arazoa errotik moztea erabaki nuen. Aitziberri gomendatu nion berbera egingo nuen: korapiloa askatu, gehiegi kateatu aurretik. Gomendio txiki bat: ez inprobisatu planik inoiz. Atsedenaldean komunera joan zela aprobetxatuz, mezu motz bat bidali nion: *Gustuko zaitut, zer diozu?* Ez nuen potrorik izan aurpegira esateko ere, eta gainera gaizki atera zen. Mezuaren soinua nigandik gertuegi entzun bezain laster, bere mugikorra nire motxilan sartu nuen, bi aldiz pentsatu gabe. Mezua ezabatu nahi nuen klabea jakin gabe, txalo bat niretzat. Bueltatu zenean, zintzo aurpegia jarriz desagertutako mugikorra bilatzen lagundu nion. Sentitzen dut, koldarregia naiz aurpegia emateko. Edonola ere, eta eskerrak, Aitziberrek ez zion garrantzia handirik eman.

Ezin duzue imajinatu zer hiru egun pasa ditudan ordutik gaur arte. Ez naiz batere ona gezurraren presioa jasaten, abisatzen dut. Gaur, taberna honetan geratzeko esan didanean, zerua buru gainera jausi zait, nireak egin duela pentsatu dut. Azkenean, egia osoa aitortzea erabaki dut, logelan ia maratoi baten ibilbidea egin bitartean. Arratsaldean, bost minutu lehenago ailegatu naiz hona, kirioak dantzan. Iritsi bezain pronto, eskuak izerditan eta barrena korapilatzen hasi zaizkit. Lasaitzea lortzeko, komunera etorri naiz. Aitortzen dut, Aitziberren mugikorra zaborrontzian botatzea ere pentsatu dut une batez. Handik gutxira, dena kontatzeko adore apur bat bildu dudanerako, atea ireki ezin dela konturatu naiz. Eta gainontzekoa, badakizue.

—Iban? Hor al zaude? —Norbait joka ari da, azkenean. Aitziber. Audioa gelditu dut. Orain, ihes egiteko leiho bat ondo legoke, ez naiz horren adoretzu sentitzen.

—Aitziber! Itxita geratu naiz eta ezin naiz ater... — orduantxe, atea ireki da. Hara, tabernariak bihurkina prest

du kasu hauetarako, eta kanpora irten naiz. Behingoagatik, nik sortutako arazo bati aurre egingo diot. Arnasa hartu, eta hitz egiten hasi naiz, mingainak pentsamenduei ohiko trabarik jarri gabe:

—Aitziber, nik daukat zure mugikorra. Mezu bat bidali nizun, ezin nuen nire mugikorretik ezabatu, eta ez zinenez han, zuretik borratzeko hartu nuen. Ez nuen egin behar. Ulertuko dut lagun izateari uzten badiogu. —Begiak lurretik altxatzean, deszifratzea lortu ez dudan aurpegi batekin egin dut topo. Haserre dirudi, eta aldi berean nire kontura barrez. Neska honekin ezin jakin.

—Banekien mugikorra zuk zenuela, Iban. Uste zenuen ez nintzela konturatuko mugikorra bat-batean desagertu zela? Hobe zen zuk zeuk aitortzea. Ez nuen zugandik horrelakorik espero. Huts egin didazu. —Izotzezko begirada horrek giro-tenperatura hamar gradutara jaitsi du— Dena den, konturatu naiz benetako nahiek gidatu beharrean askotan beldurak gidatzen zaituela. Hurrengo baterako aholku gisa, aztertu ea mezuak ezabatu daitezkeen. Mugikorra lapurtzea ez dago oso ondo ikusita, ez bazenekien. —Hitz zorrotzen artean umorea sartu du, ekaitzaren ostean agertzen diren lehenengo argi-izpiak—. Tira, bizi-tza soluzioak bilatzean datza. Arazotxo hau ahaztea eta lagunak izaten jarraitzea nahiko nuke, baldintza bakarrarekin. Ezabatu ez duzun mezu hori ikusi nahi dut.

Klaberik gabe ez dut borratzea lortu.. Mugikorra ematean, ohartu naiz:

—Egon, nola dakizu mezua ez dudala borratu? Nik ez dizut ezer esan. —Banekien, neska hau telepata da. Ez dakit nola dagoen horren pozik, esandakoaren ostean.

—Beno, esan dezagun nire metodoak ditudala. Ez naiz komunerakoan mugikorra gelan uzten duen bakarra. Noski, zure klabea jakiteak lagundu dit. —Auskalo zer gehiago ezkututzen duen aurpegi polit horrek. Itxaron.

—Mezua nire mugikorrean irakurri zenuen, eta ez didazu ezer esan. —Agian merezita daukat. Behintzat umiliazio handiena ekidin dut, eta lagunak izan gaitezkela esan du. Hori zen nire beldur nagusia—. Eta orduan, zergatik geratu gara hemen?

—Begira, denok ditugu inork ezagutu gabeko aldeak, onak zein txarrak. Baina gure alde guztiak ilunpean ezkutatzean baditugu, hesiaren barruan geratuz, oso erraz lehertuko gara, zuk irakatsi zenidan. Eta zenbat eta gehiagotan lehertu, orduan eta ilunago, barrurago egongo gara hesian. Horregatik, Iban, begietara begiratu. Bada garaia arriskatzeko. Eta atera hesitik, eguzki-argitara.

Gutun klandestinoa

Maidar Zugasti Rodríguez

Hernani BHI

Hernani

Maitea:

Hilabete baino zertxobait gehiago igaro da azkenekoz zure berri izan nuenetik. Kezkatua ninduzun, baina hileroko lege zehazteko hementxe zaude. Ezagutu zintudanetik ez zara nire albotik urrundu, nire bizitzaren zati garrantzitsua bilakatu zara, nire sistemaren ardatz. Pentsatzen dudana oro, sinisten dudana oro, sentitzen dudana oro aldatu egiten da zu gertu zaudenean, hamaika emozio ezberdin sentiarazi dizkizazu: haserrea, alaitasuna, beldurra, tristura, maitasuna... Askotan galde egin diot nire buruari zer egingo nukeen zu gabe baina sekula ez dut erantzun bat ematea lortu.

Gogoan dut ezagutu zintudan eguna, abenduko egun hotz eta gris bat zen eta ustekabeaz azaldu zinen, abisurik gabe. Hamabi urte besterik ez nituen, nerabezaroz sartu berri nintzen eta nire mundua goitik behera astindu zuen haize bolada izan zinen. Sarraski gorri eta heze baten erdian egin genuen topo, lau hormen artean. Nire begiek zurekin topo egin zuten lehen aldian gogoan dut ikara handiz begiratu nitzela, zer egin, nola jokatu jakin gabe. Zure inguruan hainbat eta hainbat zurrumurru entzunda nituen eta banekien lehenago edo beranduago gure bideak gurutzatuko zirela. Hala ere, jakinaren gainean egon arren, ezusteko galanta izan zinen.

Beldurra, ezjakintasuna, kezka. Alaitasuna, indarra, adorea. Sentimentu festa amaiezin bat sortzen zen nire barnean eta gorputzaren kontrola galtzen nuen eta oraindik ere, nahiz eta kosta egiten zaidan onartzea, ez dut kontrola berreskuratzerik lortu.

Zorionez, ezjakintasun eta beldurrez betetako bidean, hots, gure harremanean, aingeru bat izan nuen uneoro: ama. Barne galdera eta gatazkei aurre egiten lagundu zidan, gomendio, maitasun eta besarkadez josi ninduen. Gazte zela nire egoera berean egon zela esan ohi zidan, argudioen komodina zen harentzat. Behin eta berriro kontaktzen zidan urte luzez harremanetan egon zen lagunak eta berak nola ezagutu zuten elkar eta, nik, itsu-itsuan sinisten nion, aurrera egiteko beharrezkoa nuen segurtasun apur hori ematen baitzidan. Azkenean, beldurra duzunean, lasaitasuna, segurtasuna eskaintzen dizunetara atxikitzen zara.

Gure lehenengo urtea gora-beheraz josia izan zen, gutxien espero nuen unean heltzen zinen eta, gainera, zure bisitek asko irauten zuten, denbora luzez geratzen zinen nirekin. Alde egiten zenuenean sentimendu gazi-gozoez josita uzten ninduzun: pozik, ohiko egunerokora itzuli nintekeelako eta triste, hurrengo hilabetera arte ikusiko ez zintudalako.

Ez zait sekula ahaztuko hondartzara lehen aldiz batera joan ginenekoa. Zu alai eta irribarretsu zeuden, ni, ordea, lotsagorriturik. Ez nekien nola jokatu edo zer egin. Zu ezkutuan mantentzen saiatu nintzen, uretara joatea ekiditen nuen eta beroaren aitzakia erabiliz arropa jantzita izatea justifikatzen saiatzen nintzen. Orain, egin nuen guztia patetikoa dela iruditzen zait. Buruan ondo pasatzea besterik ez izan beharrean, sekretua isilpean izatea nuen.

Denbora aurrera joan ahala, zure bisitak geroz eta konstanteagoak bihurtu ziren eta egun finkoak ezartzera heldu zinen. Ordutik ez duzu hilabete batean ere huts egin. Hasierako beldur eta dardara edo kezka, gogo eta pozak ordezkutzen dituzte, mila piezako puzzle bat egitea bezain konplexua izan da zu ulertzea, baina argi izan ezazu bide luze hau behin eta berriro egingo nukeela zu alboan izanda.

Bidean zehar asko ikasi dut eta zuk asko irakatsi didazu bai nire buruaz bai nire gorputzaz ere. Atzean geratu zen batere seguru sentitzen zen neskak gazte hura, eta orain emakume eraberritua sentitzen naiz. Ez da erraza izan helmugarako bidea, eta oztopo ugariarekin egin dugu topo; hala ere, ez du inork gu banatzerik lortu.

Heldutasuna zer den erakutsi didazu, benetan garrantzia duena aintzakotzat hartzen eta beharrezkoa ez dena albo batera uzten erakutsi didazu. Aitortu behar dut guztietan lezio garrantzitsuena nire gorputza den bezala maitatzea izan dela, lotsak eta konplejuak alde batera utzi eta hainbeste begirada jasaten dituen gorputz eder eta liraina baloratzen ikastea. Ispilura begiratzean ez dut harrotasuna ez den beste ezer sentitzen. Sentimenduei dagokienez, emozioen errusiar mendi bat izan da. Pozik egotetik triste egotera igarotzen nintzen, alai egotetik haserre egotera... Ez da batere erraza emozioak kontrolatzea eta, hala ere, haiei, hein batean, mugak jartzen ikasi dut. Lehen inpotentziak jota negarrez has nintekeen; orain, aldiz, barrena hustutzeko bide ezberdinak topatu ditut: korrika egitea, lagun batekin hitz egitea, gitarra jotzea edo idaztea adibidez.

Onartzen dut bidea bihurgune eta aldapaz beteta egon dela eta bidean maiz egin dugula estropezu, izan ere, zu

gertu izateak nigan emozionalki eragin handia du. Sentimenduak kontrolatzea zailagoa izaten da eta haserre eta eztabaidak areagotu egiten dira. Gorputz osora deserosotasuna zabaltzen da eta gure arteko ika-mikek sortzen didaten tripetako-mina gogaikarria da.

Udazkeneko egun gris batean zure deiak autobusean harrapatu ninduen. Deiaren aurretik sabelean banuen askatzen ez den korapilo bat, zure etorreraren iragarle moduko bat izan zen. Ez nengoen, ez fisikoki ez emozionalki, zu berriro ikusteko prest. Herrira iristean geltokian eserita ikusi zintudan, hantxe zeunden zu patxada ederrean eta ni, aldiz, haserre bizian abisurik gabe heldu zinela. Horrelako asko egin dizkidazu, gutxien espero dudanean azaldu eta irribarre batekin arazorik egongo ez balitz bezala jokatu, dena ondo egongo balitz bezala.

Tristura handia da niretzat gure artekoa lau-haizetara ezin zabaltzea. Isilpean mantentzea besteek esango dutenaren beldur garelako. Baina ez dugu inoiz pentsatu agian haiek direla pentsamendua aldatu behar dutenak eta ez gu. Seguru nago askok begi onez ikusiko dutela, hor nonbait badirelako entzuteko prest eta laguntzeko prest daudenak.

Gizarteak zerbait ulertzen ez duenean kritikatu egiten du, horrela antolatua baitago mundua, tamalez. Gure artekoa guk uste baino gehiagok dute, ziur aski munduko biztanleriaren erdiak du edo izan du, beraz, gauzak horrela izanik, zergatik egiten da lotsa guztiaren jabe? Urte guzti hauen ostean eta ikusitakoak ikusi ostean, ohartu naiz gure gizartean naturala dena tabua dela, gizartean tratatu ezin den gaia alegia. Gurea bezalako harreman natural eta sendo bat ezin da gizartean jorratua izan. Horrek amorrua ematen dit, sutan jartzen nau. Kritikatu aurretik gogoeta sinple bat

egitea gomendatuko nioke jendeari, nik sekula ez baitut ulertuko harreman natural bat nola izan daitekeen tabu.

Hasiera batean ulertzen zaila da, nik neuk ere ez bainuen lehenengoan ulertu. Zurekin dudan harremana izango da etorkizunean bizitza berri bat mundura ekartzearen eragilea. Hasierako beldurra bizitzaren iturria izan nintekela jakitetik zetorren eta, zorionez, apurka-apurka beldur hori kudeatzen ikasi nuen, eta bizitzaren iturria izatea zama astuna izan ordez harro egoteko moduko saria zela jabetu nintzen. Orduantxe ohartu nintzen gu biok ez genuela kasualitate hutsez topo egin abenduko egun hartan. Jaio ginen unetik batera egotera kondenatuta geunden eta kondena zein ederra den!

Zu ezagutzeak gorputza bere mugara heltzea eragin zuen; ezjakintasunaren itsasoan itoko nintzela pentsatzen nuen. Zu izan zinen igeri egiteko indarrrik gabe utzi ninduen izua eta, aldi berean, zu salbagailua bota zenidana. Paradoxa itzela da, ez al zaizu iruditzen? Igeri egiten ikasi dut eta nire kabuz datorrenari aurre egiteko prest nago.

Nire ametsik handiena maite zaitudala lau haizetara garrasi egitea da inongo lotsa edo begiradarik gabe. Baina garrasi egin ezin dudan bitartean, gure arteko sekretua izaten jarraituko du, ezkutuan, isilpean, orain arte bezala. Sekretua izateak nolabaiteko zirrara eragiten du, gurea bakarrik den zerbaitek bere horretan jarraituko baitu.

Baina jakin badakit: gure bideei lehenago edo beranduago banatzea egokituko zaie, gauza guztiei iristen zaien bezala, gure maitasun istorioari amaiera helduko zaio. Modu salatariari heldu zinen eta modu salatariari joango zara. Pelikuletan esaten dena esan nahiko nizuke, zu gabe ezingo

dudala aurrera jarraitu, baina badakizu ez dela horrela izango, eta hori zuri esker izango da. Bakarrik aurrera egiteko ondo baino hobeto prestatuta nagoelako.

Burua etorkizunean izan ordez, zentratu gaitzen orainean, asko dugu eta bizitzeko. Egindakoagatik bihotz-bihotzez eskerrik asko, hileroko maitea den horri.

Hurrengo hilera arte!

PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsuak

Mendekuen fabrika

June Aiestaran Iparragirre

Beasain BHI

Beasain

Patiora atera dira banaka-banaka. Eguzkiak jotzen du goxo. Zenbait irakasle ere animatu dira, eta ikasleekin bat egin dute. Kausa zenbaitek desegin egin dezake boterea, eta indar handia da hori. Olaiari irribarre errebelde bat atera zaio, berak eragin baitu hau guztia. Ustez inork ez omen daki nork antolatu duen, baina denek dakite bere ideia izan dela. Ehun eta hogeita hamazazpi pertsona daude institutuko kantxan. Ehun eta hogeita hamazazpi pertsona, biluzik. Martin kantxaren erdian biluztu da, eta bera da lehenengo ilaran dagoena. *Errepara dezala nire larruazala*. Bere bizitzan lehen aldiz dago erdigunean; patio baten erdigunean eta lagun talde baten erdigunean. Ispilu aurrean baino ez du erakutsi orain arte bere gorputza, eta sentitzen du alboan dituen ehun eta hogeita hamasei pertsonaren begiradapean, indarra duela bere gorputzak. Indarra duela eta izan daitekeela erakargarri, eta sexy, eta desiragarri, eta miresgarri. Olaia komunera doa Mikelen bila. Ehun eta hogeita hamazazpi pertsona biluzi, kantxan, zain. Beren arropak aldageletan pilatu dituzte, eta askok eta askok lotsa sentitu badute ere, elkarren aurrean biluztu eta geldi geratzeko, inork ez du izan tentaziorik dutxarako bidea hartzeko kuleroen bila.

Erronka moduko bat sentitu dute neskek eta mutilek: nork zeharkatuko du lehendabizi aldagelako atea? Baina mutilak, beti harroputz eta handi, hasi dira elkarri bultzaka, eta denak atera dira segituan aldagelatik kanpora. Nesken artean ere ikusi da ausart agertu nahi izan duenik: biluztasuna naturala da, eta atera da lotsagabe kantxara, espazio-konkistatzaileen artera, eta gainerakoak atzetik, kikil, txiki, ahul. Baina ez dakiten arren, handi. Agindu du norbaitek ilarak egiteko. Obeditu diote denek, eta barre isilak entzun dira atzean: klaseko *guayak*. Horiek ere atrebitu dira *guayismoan* kide dutenari lezio bat emateko urratsera gehitzen. Batzuetan dirudi bihotz bat dutela aho handi horren atzean.

Martin urduri dago. Beragatik da hau guztia eta lotsatu egiten da, baina gustuko du egoera deseroso bezain gustagarri hau. Inoiz ez zuen pentsatuko ikasleek halako babesik emango ziotenik. Bi minutuko isilunea. Inor ez da gai ahotsik altxatzeko. Deserosotasuna airean, baina, aldi berean, batasuna, elkartasuna, maitasuna.

Lotsa, baina, aldi berean, harrotasuna. Begiak lurrean iltzatuta ditu Martinek; inguruko ia denek ere bai, ondokoari begiratzeko beldurrez baitaude. Epai-begiradarik ez. Ederra da biluztasuna eta kosta egiten zaie hori sinestea; hori erakusteko gai dira, baina. Hori erakustera atera dira denak banaka-banaka aldagelatik kantxara. Eta bada zerbait.

Pausoak entzun dira korridorean, eta gerrian jarri ditu eskuak Mirenek. Badatoz. Begiradak gora. Ehun eta hogeita hamazazpi hasperen. Bizkarrezurrak zuzen. Atearen heldulekua behera, eta begiak irmo atean. Irrintzi egin du Mirenek. Olaia eta Mikel atean. Institutu guztia patioan; institutu guztia biluzik, eta Martin lehenengo ilaran. Atea itxi du Olaiak, eta begietara begiratu diote denek

Mikeli. Ez daki non sartu. Isiltasuna. Deserosotasuna gorputz bakarrean. Parean, batasuna, elkartasuna, harrotasuna, biluztasuna, edertasuna. Irribarre errebeldea atera zaio berriz Olaiari, eta keinu egin dio begiekin Martini. Serio berak: *erantzi arropak eta erakutsi gure eredu izan behar lukeen gorputz lirain hori. Nik erantziko dizkizut nahiago baduzu, ahoarekin.* Gorritu egin zaizkio bi masailak. Urduritasuna aurpegian; ez daki zer egin. Olaiak atzetik gerturatu eta belarrira xuxurlatu dio: *ez da broma bat: nahi duzunean.* Ehun eta hogeita hamazazpi begirada irmo. Deserosotasuna, ihesbiderik eza, larritasuna. *Ez dut nahi.* Martin gerturatu zaio mantso, eta eskutik heldu dio: *nik ere ez dut nahi egunero-egunero irain nazazun.* Eta Martin, Igor, Laida, Aner, Jone, Iraitz, Maider, Harkaitz, Amets, Lur, Jokin, Nerea... banaka-banaka igaro zaizkio aldamenetik, patioa hutsik geratu den arte.

Ez, gezurra da; ez da halakorik gertatu, ezta gertatuko ere ziurrenik. Inor ez da atrebitzen halakorik proposatzera, astakeria bailitzateke proposatze hutsa. Baina ez da lehenengo aldia Olaiak holako mendeku bihurriren bat fabrikatzen duena bere gogoan. Ez du jasaten klaseko kideek nola jokatzen duten Martinen klaseetan. Eta aldi oro irudikatzen du fintasunez eta dotoreziaz nola emango liekeen irakaspen on bat probokatzailerei eta beren konplize guztiei, banan-banan. Eta pentsatzen du: *hauxe da momentu egokia; badut indarra.* Baina ez, eskuan estutzen du boligrafoa eta ez du begirik jasotzen komentario iraingarri bakoitzaren ostean. Badaki berak bezala pentsatzen duela beste jende askok. Badaki elkarrekin hitz eginez gero, izan behar luketela indarra. Badaki Martinekin berarekin hitz egitea litzatekeela lehen pauso zentzudunena. Baina aulkian eserita geratzen da mendekuak fabrikatzen.

Olaia ez da inoiz klaseko ahots ozenena izan. Klaseko liderraren ahotsa zehaztuta egon da beti: lotsagabea, *guaya*, gogorra eta, noski, gizona. Bueno, mutila. Hori bete ezean, ahaztu. Lau ezaugarri horiek bete ezean, isildu. Horrela funtzionatzen du Olaiaren klaseak. Eta ondokoak ere bai. Institutu guztiak funtzionatzen du horrela. Horregatik ematen ditu Olaiak klaseko ordu gehienak amesten, irudikatzen nolakoa litzatekeen horrenbesteko irmotasunez erabakitako arau zurrun horiek guztiak suntsitu ondorengo institutu aske bat. Baina ez da aski amestea, eta berak ere badaki hori.

Martin ikastetxera iritsi zenean irakasle arrunt moduan aurkeztu zuen bere burua (nola, bestela?), eta irakasle arrunt moduan tratatzen zuten ikasleek. Alabaina ikaslearen irakaslearekiko ohiko interesa piztu, eta hasi zen bakarren bat galdezka, eta usnaka. Orduan zabaldu zen institutuko mugikor guzti-guztietara “Martina Odriozola” izena, eta harrigarriki eraldatu zen dena. Klasera sartu orduko, barreak, algarak eta lekuz kanpoko komentarioak gailentzen ziren. Baina Martinek ez zuen ezer esaten; ikasgaia lantzen jarraitzen zuen, ezer gertatuko ez balitz bezala. Horixe zen jokabide zuzenena agian. Edo ez. Eta ikasturteak aurrera jarraitzen zuen.

Erotu egiten omen dira nerabeak udaberriko loraldiarekin batera. Gaur ere, betiko moduan hasi da klasea. Zalaparta ikasgelaren atzeko mahaietan. Olaia hirugarren ilaran dago eserita, leihoaren ondoan, kanpora begira. Lagungarri du zuhaitzen kolorea begien aurrean izatea, hartzen duen arnasa garbiagoa dela iruditzen baitzaio. Hamabosgarren mendeari buruz hasi da sermoia botatzen Martin. Inor gutxi ari zaio arreta eskaintzen. Gehiago entzuten dira gazteen

arteko xuxurlak. Halako batean, harropuzkeriaren haize bortitzak hartu du beste behin ere Mikel, eta honela bota dio Martini ahots-goraz: *aizan, Martina, non dauzkan gordeta hire bular joriak?* Ez entzunarena egin du maisuak, baina Olaiak gaur ez dio bere buruari eutsi. Ez daki zergatik, baina pentsatu gabe atera zaio: isil-isilik altxatu da, eta botilan zeukan ur guztia jaurti du Mikelen *Iphone 8*-aren gainera. Kanpora bidali du Martinek Olaia: *ez zara ondo ari*. Korridorean, hasperen egin, eta komunerako bidea hartu du.

Ispiluari begiratu dio, eta aurpegia urez igurtzi du, pare bat minutu lehenago bere begien aurrean izan duen eszena tamalgarria begietatik ezabatzea lortuko duelakoan, baina alferrik. Amorruek erretzen dio barrena. Ez du ulertzen nola ezin duen ezer egin, nola inork ez duen ezer egiten. Eta hori omen da “pertsonea hobeak izaten” irakatsiko dieten tokia. Lurrean eseri da, eta fabrikatzen jarraitu du: noizbait lau haizetara zabaltzea gustatuko litzaiokeen mendeku pertsonal horietako beste bat. Inoiz proposatzeko gai izango ez dena. Edo bai.

Beirazko esfera

Nahia Iturbe Orbegozo
Laskorain Ikastola
Tolosa

120 °

Bakardadean bildurik nago eta egonezinak biluztu nau. Nire arima ihesi doala nabari dut, iluntasunean murgildu da nonbait iritsi nahian. Beldur naiz, bizitzak eta errealitateak leher egingo duen beldur. Denbora geratu da, ni geratu naiz.

Gaua da eta ilargiak badaki. Kanpoaldean iluntasuna da nagusi eta baita hemen ere, Kortezar baserriko ganbara ohi baino ilunagoa dago. Argi izpiek nigana iristeko ahaleginak egin arren, belar artean barna galtzen dute euren lilura. Belar gazteenek ordea, dantzan egiten dute errealitatearen erritmoari gor eginaz. Nire barnean dudan haize boladak mugiaraziko ditu agian, batek daki.

Gaur ere oroitzapenak negar malko bihurtu zaizkit, ohean etzan orduko egin dute irrist masailetan behera. Iluntze hartan betiko galdu zen, betiko galdu nintzen, betiko galdu ginen...

Ilbera zen, berandu arte hesolak sartzen ibili ondoren, arkume errearen lurrin gozoak mahaiaren inguruan bildu gintuen Martin, senarra, eta biok. Duela urtebete inguru Kortezar baserrira ezkondu ginen, oso zoriontsuak ginen elkarren ondoan. Lanaren osteko saria jan ondoren,

sukaldeko lanak amaitu nituen. Gaua heldu zen eta sutondoan eseri nintzen senarraren alboan. Musu luze eta gozoa eman zidan. Sugarrari begira eskuekin sabelaldea igurtzi nuen, nireen gainean jarri zituen bereak ere eta irribarre txikia atera zitzaigun aurpegian.

Hamaikak inguruan ate hotsak zoriontasun hartatik esnatu gintuen. Sua itzaltzen hasia zen, egoeraz jabetuta akaso. Atea irekitzearekin batera, berdez jantzitako gizon batek “Guardia Civil” oihukatu eta lau gizon harrapaladan sartu ziren sukaldean. Sutondoan zegoen Martini heldu zioten. Honek indarrak nonbaitetik atera eta mugimendu bortitzak egiten hasi zen ihes egiteko asmoz, baina haien beso sendoek indar handiagoz eutsi zuten gizarajoa. Gizonen artetik askatzen saiatu nintzen arren, lortu nuen bakarra sekulako zaplaztekoa izan zen. Lehengo berak “Queda usted detenido por pertenecer a una banda criminal organizada” esan eta eraman zuten negar eta oihu artean.

Guztia oso azkar jazo zen. Begiak kliskatzerako atxilotu zuten senarra eta ni, ia zutik egon ezinik geratu nintzen. Ez nuen ezertxo ere ulertzen, behin eta berriro galdetzen nion neure buruari zergatik eraman zuten. Ezintasunez, negar betean, oihuka, amorratuta... laister itzuliko zen esperantzan, arnasa sakon hartu nuen.

Beste egun batez, bakardadeak esnatu nau. Azken bolada honetan, zorabioak izaten ditut noiznahi. Hala ere, nireak ez diren bihotz taupadek, aiten-aitena zen baserria aurrera ateratzera bultzatzen naute. Lanez gainezka eta diru faltan nabil azken aldian. Askotan pentsatu izan dut ni ere preso nagoela, espetxe ikusezin batean: Martin ikusezina da, ni ikusezina naiz. Ikusentizasunean nago preso.

Eskuak sabeladean murgildu ditut, itsasoa aspaldian bare-bare dago, laister da ekaitza. Gero eta beteago, gero eta borobilago.

Patata biltzeko garaia da. Aitzurra eskuartearen dudalarik, hankak itsasoko urez busti zaizkit. Izugarritzko minak lur artean etzatera behartu nau, arnasa sakon hartzen saiatu naiz eta oihera egin dut languntza eske, inoiz baino ozenago oihera egin ere. Hortzak estutu ditut, negarra irteten zait begietatik. Badator-badator, olatuak hasi dira, esku artean lurra hartu eta birrindu egin dut minaren minez. Inguruan ez da inolako ageri. Hankak zabal-zabal jarri ditut, Martinen inoiz baino behar handiagoa dut. Izerditan blai nago, poliki-poliki irteten ari da eta bat-batean dena zuri geratu da. Ez dut minik, ez dut izerdirik, ez dut egiten negarrik. Denboraren orratzak matxuratu dira. Ezerezean geratu naiz.

Begiak ireki ditut. Astiro burua altxatu eta hankartearen putzu izugarria bistaratu zait. Hantxe zegoen haurra, erdi hilik zilbor-hesteari lotuta. Bi aldiz pentsatu gabe gonaren poltsikutik labana atera eta zilbor-hestea moztu dut. Eskuak dardarka ditut, beso azpitik kontu handiz hartu dut eta aurpegira begiratu diot. Zaila da hitzez azaltzea. Patata inguruan etzan naiz.

Eguzkiarekin batera joan dira min handienak. Lurretik zutitzea lortu eta gona artean bildua dudana haurtxoa hartu dut etxeko epeltasunera abiatuz. Patxadaz, pauso geldoan, hankak zabaldua, erdi arrastaka, moztutako hestea lurraren kontra daramadala. Harraskan umea sartu eta goxoki garbitu dut. Negarrez hasi da eta horrek lasaitu egin nau, berdur bainintzen ezer txarrik izango ote zuen. Lehengo ibilerarekin ohera iristea lortu dut. Martin errugabea eramanez zutenetik, lehenengo aldia zen bakarrik ez nengoela. Nire altzoan jarri

eta arretaz begiratu dut jazotakoa guztiz asimilatu gabe. Senarra nirekin hemen egotea gustatuko litzaidake, elkar ezagutuko duten esperantzaz lo geratu naiz.

240 °

Arratsaldeko meza amaitutakoan, konbentutik atera naiz pare bat mandatu egiteko asmoz. Alabaina, atea ireki dudanean otartxo batean haur bat ikusi dut. Umetxo oso polita, aspaldian ez nuen hain ederrik ikusi. Manta batean bildurik dago, eskuz eginiko jantzia soinean eta ipurdi azpian bi pixoihal dituelarik. Bistakoa da guztia oso zaharkitua dagoela. Makurtu naizenean, zirkulu forman moztutako paper zati bat ikusi dut, honakoa dio:

“Andere agurgarria, mutil hau beharrak ekarria da. Bataiatu gabe dago eta Martintxo du izena. Urtarrilaren 17an, oren bata eta hogeita lauan jaio zen. Diru urritasunagatik ez naiz bizitza duin bat emateko gauza, erruki handiz uzten dut zure eskuetan. Bihotz-bihotzez ongi zaindu dezazun eskatzen dizut.”

Martintxo izeneko haurra hartu eta konbentuan sartu dut. Azken bolada honetan, asko dira gure ate aurrean abandonatuta edota aldi baterako uzten diren umeak. Gehienak familiaren onarpenik ez duten haurrak, bortxaketen ondorio direnak, ama gazteak dituztenak...

Kaperatik irten berri den ahizpa Catalina berehala etorri da aitaren eginaz otarra ikusi duenean. Martintxo hartu eta haurren konketetara eraman du dutxatu, pixoihala aldatu eta arropa garbia jazteko asmoz. Nik bitartean espedientean,

Martintxoren etorrerari buruzko xehetasun guztiak idatzi ditut etorkizun batean bere inskripzioa egiteko.

Ahizpok umeen heziketari sekulako garrantzia ematen diogu. Oso atseginak izaten dira guztiok jolas gelan biltzen garen unek. Gezurra badirudi ere, familiarteko giro paregabea sortzen da. Elkarrekin jolastu eta elkar ikasten dugu, irribarre bakoitzaren atzean ezkututzen den itzala tarte batez soilik ahantziaz.

Nik sentsibilizazio berezia dut ume guzti horiekin. Ezertxo ere faltako ez duten etorkizun batengatik otoitz egiten dut eta, nola ez, abandonatu beharra izan duten amengatik ere bai. Oso zaila da horrelako erabaki bat hartu eta haurra betiko agurtzea, bizitza hobea izango duen esperoan.

Egunak urte bilakatu dira, gaurko egunez bi eta bost urte bitarteko eta familiarik ez duten haurrak hegoaldera bidaliko ditugu, bertako errukietxe batera. Apain-apain jarri ditugu guztiak eta elkar agurtu dugu. Bidaiak normalean furgoneta moduko batean egiten dituzte, gidari batekin. Ahizpa guztiok kontziente gara oso baldintza kaskarretan bidaiatzen dutela. Kilometro asko dira egin beharrekoak eta zaharrenek, txikienak zaindu beharra izaten dute. Ume zaugarrienak ez dira gauza hegoaldera bizirik heltzeko, baina ez dago beste irtenbiderik bidaia ekiditeko.

360°

Egun hartatik aurrera, izena garbitzeko ahaleginetan dihardute bizitza osoa. Kalera irten orduko begiradak,

txutxu-mutxuak, irainak, meatxuak... jasanaz. Burua tente eramaten saiatu arren, lotsak eta presioak eraginda, lurrera begiratu beharra izaten dute. Beldurtuta. Beldurrek betiko baldintzatzen diotelako bizitza emakume bati.

Abandonu bat ez da haurdunaldi baten ondorengo biderik errazena. Seinalatuak diren gizarte batean, haurrak bizitza duhin eta egonkor bat izateko uzten dituzte. Euren arimari labankada batez betirako iraungo duen zauria eginaz. Kontzientziari joan dadin ateak irekiaz.

Hau esanda, barkamena eskatu nahi dizut zure ahaleginak kontuan hartu eta zure ekintza baikoitzaren atzean gordetzen den maitasuna ikusi ez ditudan momentuengatik. Bai eta jasan behar izan duzun guztiagatik. Zaila da hitzak jartzea sentitzen dudanari. Asko zor dizut elkarrekin gutxi egon bagara ere. Eskerrik asko emakumeen indarra odolean transmititzegatik. Zauden tokian zaudela, maite zaitut ama.

Ilargiaren eskuetan

Unax Muniozguren Alonso
Gernika BHI
Gernika-Lumo

Arratsaldeko bostak ziren, taberna itxi behar zuen Romasantak eta azkar ibili behar zuen gainera, txorakerietan denborarik galdu gabe, ez baldin bazen garaiz heltzen arazo larrian sartuko baitzen. Bezero bat geratzen zen, gizon bat. Romasantak ezin zuen gizona kanporatu, bezero berriek ekonomia indartzen zuten, baina ezin zuen denborarik galdu. Tik-tak, tik-tak. Erlojuko orratzek sortutako soinuek segundo oro kolpatzen zuten Romasantaren burua, estresatzen hasia zen.

Bezeroa mozkortuta zegoen eta ez zirudien taberna utzi nahi zuenik. Erlojuko kukuak bost eta erdiak jo zituen. Romasantak ezin zuen gehiago jasan. Ordu erdi itzarongo zuen, segundo erdi bat ere ez gehiago. Kokoteraino zegoen gizon horretaz. Poliki-poliki gizonarengana hurbildu zen. Taberna itxi behar zuela esan zion oso jator eta sukaldera itzuli zen. Gizonak ez zion jaramonik egin, beste hamabost minutu egon zen tabernan. Romasantak egundoko haserrealdia zeukan, ezin zuen gehiago.

Ilargia ikus zitekeen. Ederra zen benetan, haren argi hilak guztia argitzen eta iluntzen zuen eta aldi berean, argia eman ez eta beldurra eraginez. Betea zegoen ilargia gau hartan, beno, arratsalde hartan. Ilargia haren zenitera

heltzerakoan izango zen arazoak hasiko ziren unea. Romasantak bazekien hori; hori dela eta itxi nahi zuen taberna bostetan. Haren burua salbatu nahi zuen, bizirik atera nahi zuen.

Taberna garbitu ostean eta tabernatik hartu nahi zuen guztia hartu ondoren, etxerantz abiatu zen Romasanta, ikaratuta. Bazekien edozein momentutan azalduko zela otsoa deitzen zuten hori. Inork ez zekien zer zen. Otsoa ikusten zuten guztiak hilketa krudel bat izaten zuten. Otsoak egiten zituen krimen guztiak ilbetean gertatzen ziren, ilargiak zenita jadesten zuenean. Urte oso bat zeramaten horrela, krimenez krimen, ilbetez ilbete.

Baztanen gauak oso luze egiten ziren, batez ere ilargi beteko gauak. Baztan baso askoko ibarra zen, herri txikia zen eta han ez zen inoiz horrelakorik gertatu, herri lasaia zen otsoa agertu zen arte. Romasantak ere, otsoa zelako horrek bezala, urte bat zeraman Baztanen. Mendi maldan zegoen etxe abandonatu bat erosi zuen han bizitzeko, herritik pixka bat baztertuta zegoena. Romasanta gizon baxua zen, ilehoria zen eta begi berdeak zituen, ez zen oso gizon indartsua baina tipo jatorra zen eta herritarrekin bikain moldatzen zen, herri guztiak maite zuen. Galiziatik etorria zen Romasanta, Orensetik, eta berehala ikasi zuen euskara, tabernak harrera hobea izan zezan. Romasantaren taberna herriko taberna bakarra zen, jendea egunero joaten zen trago batzuk hartzera eta Romasantarekin haren abenturez hitz egitera, izan ere, Romasanta bi urtez behin herriz aldatzen zen, eta herritarrentzat mintzagai bikaina zen hori. Horretaz aparte, Romasantak xaboiak eta kremak saltzen zituen tabernan eta jendea egunero joaten zen produktu horiek erostera, merkeak eta bikainak zirelako. Inork ez zekien nola

egiten zituen, txerri edo animalia baten gantzari zer bait berezia botatzen ziola uste zuten herritarrek edo gantz berezi batekin egiten zuela. Romasantaren sekretu bakarra zen hau herritarrentzat.

Denbora luzez ibili ostean, etxera heldu zen Romasanta, arazorik gabe, otsoa oraindik ez zen ageri eta momentuz ez zirudien ezer egingo zuenik, baina inork ez zekien hori ehuneko ehunean, beti agertzen baitzen inork espero ez zuenean. Romasanta etxera heldu zenerako arratsaldeko zazpiak eta laurden ziren. Ilargia gero eta gehiago ari zen altxatzen, zenitetik hurbil zegoen. Afaltzeko haragi-xerra bat egin zuen. Afaldu ostean, Morfeoren besoetan erori eta lo sakon batek besarkatu zuen.

Hurrengo egunean oso berandu altxatu zen, eguerdiko hamabiak ziren eta bezeroak zain izango zituen bere tabernaren atean. Bere buruari errieta egin zion eta korrika batean gosalduta eta jantzi ostean tabernara abiatu zen. Bere etxetik herriraino ordu eta erdiko ibilbidea zegoen oinez, bide malkartsua zen, eta euria egiten zuenean lokatzez betetzen zen. Eguerdi hartan ez zuen euririk egin eta horrek bidea erraztu zion Romasantari.

Tabernara heldu zenean ordu bata eta erdiak ziren. Jende multzoa ikusi zuen tabernaren inguruan. Bezeroak ziren eta ez zitzaion arraroa iruditu. Tabernaren atera hurreratu zenean hantxe ikusi zuen. Sekulako higuina sentitu zuen momentuan, beste alde batera joan behar izan zuen oka egiteko gogoia saihesteko. Bezperako arratsaldean edukitako azken bezeroa zen ikusi zuena. Beno, gorpu horretatik geratzen zena ikusita, bezero hura zen susmoa zeukan. Gorpuak hesteak aterata zituen eta norbaitek gantza kendu ziola zirudien, goitik behera

zatituta zegoen eta hustuta zegoela zirudien. Ebakiz beterik zeukan gorputza eta odolustuta zegoela zirudien, haren inguruan sekulako odol erreka zegoen eta. Romasanta, eszena nardagarri hura ikustean, ez zen konturatu tabernaren atean geratu zela; horretaz ohartzean narda areagotu egin zitzaion eta ezin izan zuen oka egiteko gogoia saihestu.

Nafarroako erregearen soldaduak heldu ziren Baztanera hiltzailea aurkitzeko eta epaimahaira eramateko. Romasanta izan zen hitz egiten ausartu zen bakarra. - Eguerdi on, Miguel Blanco Romasanta naiz baina deitu Romasanta, mesedez. Tabernaren jabea naiz.

- Egun on, ni Errodrigo kapitaina naiz.- Errodrigo gizon handi eta indartsua zen. Begi beltzek bere azal zuriarekin kontrastea sortzen zuten.- Gorpua eramango dugu lehenbizi eta gero hitz egingo dugu zuk eta biok, ados? Hor itxaron. Mesedez ez ukitu ezer eta ez mugitu, banan-banan joango dira soldaduak zuekin hitz egitera, hilerio bezala.- esan zien herritarrei.

Gorpua tabernatik kendu zuten, baina oraindik odol putzua han zegoen. Romasanta odol putzua garbitzen zegoela kapitaina agertu zen.

- Romasanta, ezta?- Romasantak baiezko keinua egin zion buruarekin.- Ondo da. Zure taberna dela esan duzu, ezagutzen zenuen gizon hori?

- Atzo etorri zen lehenengo aldiz nire tabernara, mozkortuta zegoen erabat. Bere buruari hitz egiten zion etengabe. Burutik zeharo jota zegoela zirudien.

- Zer zioen gizonak ba?

- Ez dut guztia gogoratzen baina zerbait bai. Hau esan zuen: “Zoratuta nagoela uste dute eta dena otsoa nor den dakidala esan dudalako... Baina nik badakit nor den, badakit nor den eta jendeak sinesten didanean, otsoaren kontua bukatu egingo da betirako. Ez da otsorik egongo, ez gaitu erasotuko. Badakit mendian bizi dena dela, badakit bera dela, baina ez didate sinesten. Zergatik ez didate sinesten? Nik beti esaten dut egia”. Otsoa nor zen bazekiela esaten egon zen tabernatik bota nuen arte.

- Zergatik bota zenuen tabernatik?

- Ilargia ateratzen ari zelako eta banekien ilargia zenitera heltzean otsoa agertuko zela, eta nire bizia estimatzen dut. Gizon hau kalean zegoen otsoa heldu zenean, horretaz ziur nago, baina ez dut ulertzen nire tabernaren atean egotearen arrazoia. Dena dela, nik taberna itxi nahi nuen lehenbailehen etxerantz joateko.

- Badakizu otsoak etxean dagoen jendea ere hiltzen duela ezta?

- Bai, kontziente naiz. Baina nire etxea mendi maldan dago eta otsoaren hilketa guztiak herrian izan dira, beraz, etxean lasaiago nago momentuz.

- Ongi da, nahikoa da gaurkoz. Ez zaitetz herritik joan, hilabete honetan aurkituko dut otsoa edo dena delako hori.

Kapitainak Romasantaren ondotik pasatu eta alde egin zuen, bere hantustearen usaina eta arima han utziz. Romasantak harrokeria gorroto zuen eta gizon horrek bere

gorputzeko ertz guztietatik egozten zuen. Ez zuen gogoko kapitaina. Kapitanaren harrokeria ahaztuz odola garbitzen jarraitu zuen. Denbora luzez egon zen odola garbitzen. Egun horretan dirua galdu zuen, ez baitzuen taberna ireki. Etxera joan zen gero, eta xaboiak eta kremak egiteko aprobetxatuko zuen eguna. Etxera heldu zenean, sentsazio arraroa zeukan, norbait zelatatzen zebilen sentsazioa zuen. Sentsazio horrek burutik oinetarainoko hotzikara eragin zion. Beldurtuta zegoen. Etxera heltzeko geratzen zitzaizkion hamar metroak korrika batean egin zituen, inoiz baino azkarrago, lasterka.

Etxean sartu eta potez beterik zegoen pakete bat ikusi zuen. Potetan gelatina itxura zeukan egitura zuri bat zegoen. Romasantak poteak ireki zituen eta izugarrizko kiratsa ateratzen, Romasantak bazekien zer zen potean zegoen hori: gantza zen. Xaboiak eta kremak egiteko bikaina zen, baina ez zuen erabiliko, susmo txarra zeukan gantz horren jatorria dela eta. Berak txerri gantza erabiltzen zuen beti kremak egiteko eta ez zekien ze gantz mota zen hura. Bat-batean tabernako gizonaren gorpua gogoratu zuen, gantz gutxi zeukan eta orain bazekien zergatik, norbaitek gantz hori kendu zion gorpuari eta bere etxera eraman zuen jendeak bera hiltzailea zela pentsa zezan.

Kanpoan norbait ote zegoen begiratu zuen Romasantak. Inor ez zegoela ikusita, bere logelara abiatu zen eta han xaboiak eta kremak egiteko materiala hartu eta xaboiak egiten hasi zen. Hurrengo egunean salduko zituen baina lehenengo etxean aurkitu zituen poteak ezkutatuko zituen eta bere egunerokoan gertatutakoa idatzi zuen.

Egunerokoan idazten zegoela zerbait entzun zuen. Bere etxeko atearen soinua entzun zuen. Soinu madarikatua zen, ehorztokitik ateratako soinua, deabrua bera ere beldurtzeko gai zen soinua. Hotzikara batek korritu zuen Romasantaren

bizkarrezurra. Azkar bukatu zuen idazten eta poteekin batera gorde zuen egunerokoa ere, eta soinu haren jatorrirantz abiatu zen. Izutzen hasia zen. Ez zekien zer egin, beldurrak airean zegoen. Supituki itzal bat ikusi zuen bere atzean; ezin zen izan, ez zegoen ilargi beterik. Itzala argirantz zihoan, Romasantak otsoaren aurpegia ikus zezakeen. Ezin zen bera izan, ezin zen otsoa izan.

Otsoak Romasantari begiratu zion eta Romasantak otsoari. Tentsioa zegoen egongelan. Itsumustuan otsoa Romasantaren bila joan zen eta aurpegian egundoko kolpea eman zion. Romasanta lurrera jausi zen, bazekien ezer gutxi egin zezakeela otsoaren kontra, baina berak ez zuen etsiko. Lurretik altxatu eta gogor egin zuen, muturreko bat eman zion otsoari. Otsoak kontrola galdu eta dardarka hasi zen. Romasantak ez zekien zer ari zen gertatzen. Otsoari marmar ahul bat atera zitzaion, txakur bat izango balitz bezala eta bere begiradaren mezu harroputza aldatu egin zen. Bere begiek basapiztia baten begiak ziruditen. Bere begirada berriak zorotasuna eta sumina besterik ez zuen adierazten. Begiek tonu horizka bat hartu zuten, lehen beltzak ziren begiak hori bihurtu ziren. Romasantak ezin zuen ikusten ari zena sinetsi, ezinezkoa zen gertatzen ari zena. Otsoak marmarka jarraitzen zuen baina orain haren hortzek forma aldatu zuten, letagin luze eta zorrotzak zituen. Romasanta beldurraren beldurrez paralizatuta geratu zen.

Egunkari guztietan agertu zen hurrengo goizean albistea. Romasantaren etxean aurkitu zuten Errodrigo kapitaina. Gizonaren arropa guztiak urratuta zeuden eta lehen bere soldaduak izan zirenak atxilotuta zeramaten. Errodrigo zen otsoa, Errodrigo zen hiltzailea, horregatik ez zuten inoiz hiltzailea aurkitu, berak mugitzen zituen hariak bere

errugabetasuna ziurtatzeko eta bere susmorik inork izan ez zezan. Epaiketa izango zuen eta ziurrenik “garrote bilera” kondenatuko zuten, hilketa bat baino gehiago egiteagatik. Bukatu zen otsoaren amesgaiztoa Baztaneko herritarrentzat. Behin eta betiko bukatu zen!

Arazo bakarra Romasanta zen, inork ez zekien non zegoen, bera zen lekuko bakarra, izan ere, Errodrigok hil nahi izan zuen. Haren egunerokoak salatu zuen Errodrigo, Romasantari esker bukatu zen Baztan herriaren amesgaiztoa.

Halako baten esnatu zen. Ez zekien non zegoen. Zegoen tokia gainbegiratu zuen. Basoa zirudien. Altxatu egin zen, gose eta egarri zen. Lekua hobeto begiratu zuen. Hotza sentitu zuen, bere burua begiratu zuen, biluzik zegoen! Dena gogoratu zuen bat-batean: Errodrigo! Zergatik erasotu nauzu? Ez dizut ezer egin.

Miguel Blanco Romasanta zu izango zara otsoa. Gizon guztiak nahi dutena emango dizut orain, indarra, bizkortasuna, naturaz gaindiko zentzumenak, basapiztia bihurtzeko aukera, otso izateko aukera.

Egon zaitez, zer esan nahi duzu?

Otso odola izango duzu zainetan, zure seme-alabek otso odola izango dute. Ezin duzu ezer egin, zu aukeratu zaitut eta zu izango zara hurrengoa.

Errodrigo, zer egingo didazu? Zer zara zu?

Benetako gizon bihurtuko zaitut. Gizotso bihurtuko zaitut, nire espeziekoa bihurtuko zaitut eta ezin izango duzu ihes egin.

Errodrigok haren gainera egin zuen jauzi otso beltza bilakatuta, eta koska egin zion sorbaldan. Horren ostean gizaki bihurtu zen berriro, arropak guztiz urratuata zituen. – “Gaur lehen aldiz bihurtuko zara otso, ordu baten buruan. Joan zaitez basora eta han geratu. Ez duzu inor hil beharrik, animaliez elika zaitezke, behin gizakiz elikatuz gero, beti nahi izango duzu gizaki haragia, ez izan ni bezain tontoa eta aprobetxatu aukera zoragarri hau. Ilargi beteetan otso bihurtuko zara, baita haserretzen zarenero ere. Nahi duzunean bihur zaitezke otso eta beste batzuk ere otso bihur ditzakezu. Azkar, zoaz hemendik eta itzul zaitez bihar goizean arropen bila. Egizu alde Baztanetik, alde Nafarroatik. Galiziara joan eta osa ezazu han zure familia, kontaezu zure seme-alabei nor diren, zer diren eta ez utzi haiek gizaki haragirik jan dezaten. Agur Miguel, plazer bat izan da zu ezagutzea.” Romasantak hori egin zuen, handik alde egin eta bost seme-alaba izan zituen. Horietako bat Manuel Blanco Romasanta izan zen, Allarizeko gizotso famatua bihurtu zena, baina hori, beste istorio bat da.

Odolkiak ordainetan

Oihana Fernández de Larrinoa Ibarbia
Erniobeia BHI
Villabona

Trenari itxaroten nion geltoki hutsean. Gauaren isiltasunak hormen aurka talka egin eta burua zulatzen zidan nolabait. Erlojuari begiratu nion: gaueko 02:09, 5 minutu tren a gertzeko. Ordu horretan ziur ez zela beste inor etorriko, etxera itzultzen zen mozkorren bat ez bada, eta horiek seguruenik, ez ziren nire presentziaz oroituko biharamunean.

Beti izan naiz arazoetatik ihes egin eta aurka egiteko adorerik aurkitzen ez duena; hala ere, oraingoan ezinezkoa zen etxean geratzea. Alde egin behar nuen, eta azkar gainera. Bihar amak izango zituen kezka eta urduritasuna irudikatzeak ordea, atzera pausoa egitera bultzatzen ninduen. Baina gertatutakoa jakin ondoren, amak antzemango zuen ni nintzela errudun. Eta bertan egongo banintz, okerragoa izango litzateke.

Nire gainetik bele beltz bat karrankaka igaro zenean esnatu nintzen nire gogoetatik. Arraroa, pentsatu nuen, belea gaueko ordu honetan? Farola gainean pausatu zen gaua bezain beltza zen belea, eta niretzat ingurune ilunean ia ikusezinak ziren bere bi begiak finkatu zituen nireetan. Nahiz eta bele heldu baten itxura izan, sortu berria zen begiradaz behatzen ninduen. Ez naiz inoiz animalia zalea

izan, baina amaigabeko sakontasuna zuten bi begi haiek erabat liluratu ninduten.

Bere begirada tentagarri hartan harrapatuta nengoela, trenan bi minutu barru iritsiko zela ohartarazi zidaten geltokiko bozgorailuek. Badaezpada, ingurura begiratu nuen berriz ere, inor ez. Eskerrak.

Handik denbora laburrera, neure begien ertzetik bele gaztearen begiradapean jarraitzen nuela ohartu nintzen. Baina oraingoan ezerosotasun aztoragarria sortu zidan. Zergatik halako intentsitate beldurgarria? Hotzikara bat sentitu nuen bizkarrezurrean barna, eta geltokiaren alde batetik bestera ibiltzeari ekin nion, ezinegona baretzeko asmotan.

Urrutian ikusten zen bihurgunean agertu zen trenan azkenean, aurrean zituen bi argiek itsutu ninduten ia. Txori ziztrin hura ikaratu eta alde egingo zuela uste nuen, baina ez, bertan geratu zen, dena kontrolpean zuela. Trenan gerturatu eta gerturatu, eta txori gogaikarria oraindik hor. Zer arraio nahi du? Trenan are eta hurbilago, zarata geroz eta jasangaitzago, eta bera oraindik hor. Nazkatu eta geltokiaren beste izkinarantz abiatu nintzen, ea aspertu eta beste norabait alde egiten zuen, baina ez, bertan erantsita balego bezala zut.

Trenan dagoeneko bertan zegoen. Nahiz eta egunero lanerako bidean bertan muntatu, sentsazio berezia nuen tripan oraingoan. Nire aurrean geratu, eta gertuen zegoen aterantz inguratu nintzen. Besoa luzatu nuen botoi berdea sakatzeko asmotan, baina sabelak ezetz esaten zidan. Momentu motz batean alde ez egiteko asmoa izan nuen. Koldarra sentitzen nintzen, egindakoaren ondorioak jasateko gai izango ez banintz bezala. Eta hori egia da, arazoetatik alde egiten duen kakati bat besterik ez naiz. Esan dudana

moduan, ordea, pentsamendu horiek ez zuten denbora luzez iraun nire gogoetan. Betiko erara, bide zuzena hartu beharrean, ganoragabekoa izatea erabaki nuen, eta botoia sakatu ondoren trenera igo nintzen.

Ateak nire atzean itxi ondoren, alboetara begiratu nuen berriz, hemen ere inor ez. Gaur gertatutakoaren ondoren zorte onekoa sentitzen nintzen. Bagoiaren beste aldean zeuden eserlekuetara abiatu nintzen, beti ere norbait igoko zen beldurrez.

Eseri bezain laster abiatu zen gastatutako tren zaharra, errailen aurka igarotzean zarata ikaragarria eginez. Farolen bitartez, kanpokoa ikusteko gai nintzen oraindik. Eta nola ez, belearen farolaren ondotik igarotzean, txoria oraindik hor. Nire begirada atzeman zuenean, hegoak astindu eta trenaren norabide berberean abiatu zen, nire bistatik ezkutatuz. Ni trenera noiz igo itxaroten egon zela iruditzen zitzaidan, bertan nengoela ziurtatu arte alde egiteko asmorik ez balu bezala.

Geltokitik urrundu ahala, eta farolak atzean utzita, kanpoaldea ikusezin bihurtu zen nire begientzat. Orain, nire isla zen leihoan islatuta ikusten nuen bakarra. Begiak gorrituak nituen, eta postura ere goibela, nekatua nuen gorputza. Nahiz eta istripuak andre hari askozaz ere min gehiago egin, nire gorputza kolpatua sentitzen nuen.

Bertan lo ziplo erortzekotan nengoen, baina buruak ezetz esaten zidan. Beraz, burua distraitzeko, trenetik jaistean zer egin pentsatzen hasi nintzen.

Alde egitea zentzugabea zen nolabait, segituan aurkituko ninduten, eta ez nuen nora joan. Banuen lagun bat hirian,

baina bertara joan ezker berehala aurkituko ninduten. Damuz bete nintzen berriz ere, zergatik alde egin? Eta zergatik ez nituen nire ekintzak aurretik pentsatu? Onartu behar dut, urduritasun handiko egoeretan, kontrol guztia galdu eta gorputzak eragindako bulkadetan erreakzionatzen dudala, zentzutasunik gabe. Oraingoan ere, istripuak hainbesteko larrialdia sortuta, burugabekeriaz betetako nire kasketak, alde egitea besterik ez zuen bere baitan.

Lanegun luze baten ostean, etxera bidean, gertatu zen egoera honetara ekarri ninduen arazoa. Lur jota nentorren, fabrika eginbehar gehiago zegoen, eta nagusiak denbora luzeagoz geratzeko esan baitzidan. Hainbeste makina programatu, paketeak antolatu, eta lankideen marmarrak entzun ondoren, burua lehertzeaz neukan.

Begiak errepidean eduki arren, gogo beste leku batean nuen. Etxera iritsi eta amaren afari gozoa usaindu eta dastatu nahi nuen. Egongelako sutondoan eseri eta libururen bat irakurri, lo hartu arte. Nekea, ahultasuna, miseria... eta ohartu gabe kontrako bidetik agertu zen autoa. Kaka zaharra!

Danbateko ederra jaso nuen. Nire gorputzak aurreraka bultzatzen ninduen indarra jaso zuen, eta nire buruak ia kolpe beldurgarria. Egia esan, eskerrak emateko moduan nengoen, azkar erreakzionatzean, gorputzak hartu zitzakeen kolpeak soildu bainituen.

Geldi geratu nintzen segundo batzuek, gertatutakoa sinetsi ezinik. Eta isiltasuna zabaldu zen autoan. Egoeraz jabetu ahala, arnasots sakonak hasi nintzen egiten, indarra

airetik jasoz. Orain, hori zen entzun nezakeen bakarra, nire hasperenak gau mutuaren aurka.

Istripua bi kotxeren artean izen zela jabetu nintzenean egin zen nire larritasuna ikusgai. Uhala askatu eta kotxetik irten nintzen berehala. Kanpoaldea ez zen guztiz iluna, eta jo nuen autoaren silueta argi eta garbi ikus nezakeen. Hala ere, ez nintzen barrukoa ikusteko gai. Horrek beste hainbat kezka sortu zizkidan: gidaria zauritu badut? Eta okerrago, bertan familia bat bazihoan?

Buruan beste historia paranoiko bat sortu aurretik, zer zen egia eta zer ez jakitea erabaki nuen. Beraz, neure buruari ausarta nintzela sinestarazi, eta poliki-poliki abiatu nintzen beste autorantz. Gerturatu hala, nire erreflexua besterik ez nuen ikusten aurreko leihoan. Barruko mugimendu-ebak estutu ninduen, zer egin dut?

Kotxearen parera iristean, norbaiten gorputza nabarmentzen hasi nintzen. Hotzikarak gorputzean barna. Atea ireki, ez ireki, gidaria lagundu, bertan utzi... Bulkada batez, atea ireki nuen. Oraindik iluntasunera ohitu ez ziren begiekin objektuak hasi nintzen bereizten, eta gero, gorputza.

Burua bolantearen aurka etzanda zuen, bizitzaren arrastorik gabe. Motots nahasi batean zuen bilduta ilea, eta kolore gorriko orbana erraz nabarmentzen zen bere ile zurian. Badaezpada, besoan ukitu nuen, zirkin txiki bat egingo zuen esperoan. Baina ezer ez.

Arnasa hartu gabe egon nintzen momentu batean, eta zurbil nabaritzen nuen aurpegia, odolik gabe geratu banintz bezala. Atzerapausoa egin ostean, atea danbateko handi batez itxi, eta korrika itzuli nintzen neure kotxera. Pentsatu

gabe ari nintzen erreakzionatzen. Alde egitea zen burura etorri zitzaidan lehenengo erantzuna, eta beste aukerarik balego ere, hor abiatu nintzen tren geltokirantz.

Bitartean, andre zaharra bertan zerraldo zegoen. Eta ni berriz, alde egiten. Geratu eta lagundu beharrea, ihesean. Anbulantzia bati deitu beharrea, salbatzeko aukerarik balego ere, bertan abandonatuta utzi nuen gaixoa. Baina jada beranduegi zen.

Treneko atea ireki, eta asaldatuta esnatu nintzen oroitzapenetik. Gizon bat sartu zen trenean, trajea jantzita, korbata eta guzti. Eserlekuan atzera egin nuen, bizkarra paretaren kontra itsatsiz: ez etorri honantz, ez nazala ikusi, bagoiaren beste aldera joan dadila... Zorionez, gogoak okupatua zuen gizonak, eta gertuen zuen aulkian eseri zen zuzenean. Berak ere lanegun luzea izango zuela eta, nekatuta egongo zela pentsatu nuen. Ez nuen kezkatu behar, ni ere han nengoela ez zen konturatuko.

Berari so egon nintzen hasieran, badaezpada ere. Gero, seguruago sentitzean, neure kontuetara itzuli nintzen. Begirada bueltatzean ordea, leihoko islan zerbait sumatu nuen. Momentu ezin laburragoko gauza izan arren, atentzioa eman zidan. Segituan berriro begiratu nuen, zer zen hobeto ikus nezan. Ezinezkoa.

Ezin liteke. Orain konturatu naiz? Bihotz-taupadak azkartu zitzaizkidan, eta buruan bero ikaragarria sentitzen nuen. Berriro kontu handiz begiratu nuen leihora. Nire begien islak ekarri ninduten oroimenera bueltan, gertatu denaren edo gertatu zitekeenaren azalpen guztiak gordetzen zituenak.

Istripuan, andrearen besoa ukitzera aurreratzean, kotxe barruko ispiluan nire begiak ikusi nituen islatuta. Baina hori ez da garrantzitsuena. Ispiluaren azpialdean kutun bat zegoen zintzilikatuta, bele baten formako kutuna. Posible da?

Urduritu egin nintzen, trenetik atera behar nuen. Bagoiaren paretetan itsatsita zeuden geltokien mapei so egin nien. Bi geltoki geratzen ziren tunelera iritsi aurretik. Tunela... Zergatik nion beldurra? Tripako sentsazio batek tunela ekidin behar nuela esaten zidan, bestela nireak akabo zela. Eta nik, nire sabelak esaten zidanarekin fidatzea beste aukerarik ez nuen momentu horretan.

Hurrengo geltokira hurreratzean, trena gelditzen hasi zen, eta ni bertatik ateratzeko prestatzen. Burua altxa nuenean ordea, gizon hura ikusi nuen. Berak ere geltoki hartan jeitsi behar zuen. Ate ondoan zutik geratu zen, trena noiz geldituko zain. Bai zorte txarra nirea!

Geltoki horretan jaitsi ezkerro gizonak ikusiko ninduen. Gainera, beste geraleku bat ere bazegoen tunela baino lehen. Zer gerta ere, hurrengoan jaitsiko nintzela konbentzitu nuen neure burua. Ez nuen inork ni ikusterik nahi, eta agian, nire barnean sortu nuena, historia inozo bat besterik ez zen. Zabaldu ziren ateak, eta irten zen gizona. Berriro itxi, eta han abiatu zen trena, ibilgailu malapartatu hartatik irteteko aukera bakarra emango zidan geltokirantz.

Geltokira hurbiltzen ari ginen, eta ni jada ate ondoan, botoia sakatzeko prest. Urduritzen hasia nintzen, ate gaineko pantaila zaharkituan geltokiaren izena agertzen baitzen harrezkerro. Trenak mantsotzeari ekin zion, guztiz gelditu arte.

Botoia berde jarri orduko sakatu nuen, baina ez zuen funtzionatzen. Zer demontre? Berriro sakatu, zapaldu, zanpatu eta kolpatu arren ez ziren atea irekitzen. Guztiz ikaratu nintzen. Eta orain zer?

Lasterka hurrengo bagoira jo nuen, ez nuen denbora luzerik. Atera iritsi eta botoia sakatu nuen, baina ezer ez. Bele madarikatua! Trena aurrera abiatu zen, eta nik atearen kontra zanpatuta jarraitzen nuen, larritasunak altxatzeko indar guztiak kendu zizkidan.

Tunelera laster helduko gara. Tunela... Atsoari lagundu besterik ez nuen egin behar, anbulantziari deitu behintzat. Baina hori ere ez nuen egin. Odolkiak ordainetan, horrela dio esaera zaharrak, eta horrela izaten jarraitzen du.

Sartu gara tunel estura, eta haren bukaeran txistu hotsa entzun da. Ez da izan gure trena soinu hiltzailea egin duena ordea. Akabo nirea.

Beleak egin ohi duen moduan, niri ere dirdiraz betetako huraxe, bizitza bera, lapurtu zidan.

Heriotza Gorria

Naia Urtaran Bilbao

Murgia BHI

Murgia

Betidanik mundu iluna eta itxia ezagutzen nuen, horregatik koloreak ezagutu nituenean deskribatu ezin daitekeen sentimendua sentitu nuen.

Gu, behean jaiotzen garenak, fabriketan lan egitera behartuta gaude, 12 urterekin umeen lantegian sartzen gaituzte; 20 urterekin, nagusien lantegian. Haurtzaroko oroitzapenak ez ditut oso ondo gogoratzen, baina liburu bat gogoan daukat. Aita eta ama lantegian zeuden bitartean, beti bezala etxeari bueltak ematen nenbilen. 8 urteko ume batentzat edozer interesgarri bihurtu zitekeen. Ondorioz, egongelan miatu gabe neukan armairu altu batek inoiz baino interesgarriagoa zirudien, aulki baten laguntzarekin, armairuaren barruan zegoena ikusteko gai izan nintzen, bertan bakarrik liburu bat zegoen, liburu zahar bat. Liburua hartu eta aulkitik jaitsi nintzen; suposatu nuen amarena zela, ama baitzen etxean irakurtzen zekien bakarra, baina irekitzean konturatu nintzen bertan ez zegoela hitzik, guztia irudiak ziren, irudi koloretsuak. Ama heldu zenean, azaldu zidan irudiak goiko munduan zeuden paisaiak zirela, momentu horrek nire bizitza aldatu zuen. Goiko mundua benetan polita zen, zuhaitzek, belardiek eta batez ere argi naturalak benetan magikoak ziruditen. Hemen behean argi naturalik ez zegoen; gainera fabriken keak airea kutsatzen

zuen. Baina gurasoek azaldu zidaten goikoa desiratzen zutenak gaizkileak zirela, eta gaizkileak bukaera bakarra zutela, heriotza gorria.

12 urte bete nituenean, lantegian sartu ninduten, umeen lantegian. Umeak bertan geratzen ginen lo egitera, logelak bi pertsonarentzat ziren; metalezko atea kanpotik itxi egiten zen, gu seguruago egoteko. Ailegatu nintzenean, benetan urduri negoen. Gurasoek jakin gabe eraman nuen liburua, ez nintzen gaizkileak bezalako, baina liburu horrek ametsak errazten zituen. Lantegian egon ginen lehenengo egunean arauak azaldu zizkiguten, eta berri guztioi eman ziguten peto grisa. Azaldu zuten peto grisa zeramatenak onak zirela, eta peto gorridunak gaiztoak. Peto gorria saihesteko arauak bete behar zenituen eta, etxean bezala, arau garrantzitsuena, zera zen, goikoa ezin duzula desiratu.

Nire logelan beste neska bat zegoen; bere izena Lu zen. Polita eta txukuna zen, eta bere begietan distira berezi bat zegoen. Azkenean, lagun egin ginen. Oso ezberdinak izan arren, zerbaitek batzen gintuen: berak ere goiko munduarekin amets egiten zuen; ahal genuen guztietan liburua begiratzen genuen. Lantegian lana gogorra zen: orduak ematen genituen goiko pertsonentzako produktuak prestatzen, eta soilik ordubete genuen deskantsatzeko eta jateko. Noski, salbuespenak zeuden; gaizkileak akabatzen zituzten egunetan, bi lantegiko langileak batzen ginen lantegien artean zegoen plaza nagusian. Bertan kea eta beroa ez ziren hainbeste nabaritzen, baina tristura gehiago sentitzen zen. Egun batean, zehazki ejekuzio egun batean, beste batzuetan bezala, plazan juntatu ginen, baina bost gaizkileen artean bi nire gurasoak ziren. Epailearen hitzak ez nituen entzun. Ziur aski guztia gezurra zen, baina gorritz jantzita zeudenak gaizkileak ziren, eta haiek ere jantzi gorriak zeramatzen.

Ez nintzen mugitu, ez nuen oihurik bota, baina nahigabe malkotan hasi nintzen, epaileak keinua egin eta bertan gaizkileen bizitzarekin akabatu zuten. Gelara ailegatu ginenean, ez nuen hitzik esan. Luk ordea hitzik gabe guztia ulertu zuen, gau osoa eman zuen ni besarkatzen, berak hurrengo egun tristeak alaiagoak bihurtu zituen. Denboraren poderioz lana egitera ohitu nintzen. Gainera, Lurekin denbora azkarrago igarotzen zen, berarekin berezi sentitzen nintzen, baina gau batean ez zen logelara bueltatu. Hurrengo egunean, berriro ikusi nuen jangelan, gaizkileen mahaiian, gorritz jantzita: jada ez zeukan begietako distira berezia, bi astetara desagertu egin zen.

Lu gabe, konturatu nintzen bakarrik nengoela, metalezko atea ez zirudien hain babesgarria, beheko munduak ilunagoa, txikiagoa zirudien eta grisez jantzita zeudenak, gorridunak baino askoz gaiztoagoak ziruditen. Guztia galdu nenez, ez nuen ezer galtzeko, pentsamendu horrekin plan bat sortu nuen, goiko munduan bizitza berri bat hasiko nuen. Urtebete eman nuen bertan lan egiten, eta horren ondorioz korridore gehienak ezagutzen nituen, baita langileen ordutegia ere. Hauxe zen ideia: goiko mundura ematen zuen atea zeharkatzea eta, horretarako, gauean atea itxi baino lehenago, logelatik ateratzea eta, segurtasun langileak saihestuz, atearaino heltzea. Baina atea irekitzeko txartel berezi bat behar nuen. Hori zatirik arriskutsuena izan zen: langile berezien gelan sartu behar nintzen eta txartela lapurtu. Ordubeteko atsedendian, komunera joateko aitzakia erabili nuen; komuneko eta segurtasun gelako korridorea berdina zenez, erraz lortu nuen seguritate gelan sartzea, eta bertan, isiltasun osoz, txartela lortu nuen.

Gau horretan atea itxi baino lehenago neukan guztia hartu nuen eta, esperantzaz beteta, kontu handiarekin mugitu

nintzen. Plana mila aldiz errepikatu nuen buruan, baina orain beldur handiagoa nuen. Eskailera guztiak igo nituen eta ateraino ailegatutakoan, alarmak joka hasi ziren. Denbora galdu gabe, goiko mundura eramango ninduen atea ireki nuen, baina belardi polit baten ordezkailera gehiagorekin topo egin nuen, bukaezinak ziruditen eskailerak. Ahal izan nuen azkarren mugitu nintzen, eta justu argi pixka bat ikusi nuenean, harrapatu egin ninduten. Gela oso txiki batera eraman ninduten; bertan nire liburua erre zuten peto grisarekin batera. Gorriz jantzi ninduten eta gela ilun batera eraman ninduten, beste peto gorridunekin. Bi egunetara, lantegiak baino beherago zegoen gela handi batera eraman ninduten: handia zen, oso txikia zirudien ordea, hildakoen gorputzak leku gehiena hartzen zutelako. Gorputzen artean Lu ezberdindu nuen, bere begiak ikusi nituenean, zertxobait lasaitu nintzen, nolabait bere begietan iraganeko distira antzeko bat ikusi nuelako. Belauniko jarri nintzen zoru hotzean, eta beste hiru peto gorridun ekarri zituzten. Begiak estali zizkiguten eta iluntasun osoan argi entzun nuen lehenengo tiro bat. Ondorioz beldurrak nire gorputza hartu zuen. Ondoren, bigarren bat. Ostean, hirugarrena. Laugarrenarekin batera min handia sentitu nuen, ostean lasaitasun izugarria. Berriro begiak ireki nituenean, kolore ezberdineko lorez betetako zelai handi batean nengoen, Lu ere bertan zegoen, soineko gorri batekin jantzita, baita gurasoak ere traje gorri batekin. Hainbeste kolore ikusi ahal ziren, baina gehien ikusten zena gorria zen.

URRZUNOTARRAK
1986-2021

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Abaunza Urionabarrenetxea	Sara	Ametsen bila	2013	Prosa
Aboitiz Correa	Xabier	Ikaro	2010	Prosa
Aginaga Etxebarria	Leire	Anbotoko dama	2017	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Maite duen orok...	2000	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Gorrotorearen mendekua	2000	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	La dolce vendetta	2001	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	Prosa
Agirre Epelde	Maddi	Sugea eta zu	2020	Prosa
